

guaike

SAKANAKO ASTEKARIA





Sakanako mugimendu feministako hainbat kidek parte hartu zuten gaurko greba egunaren deialdian.

Gizarte itun berria eskatzeko

Sakanako mugimendu feministak “dena aldatzeko” emakumezkoak 24 orduko grebara deitu ditu gaur. Herrietan hainbat deialdi eginak daude eta haietan parte hartzera deitu dute. Ibarreko manifestazioa Altsasun izanen da, 19:00etan

SAKANA
Joan den urtean bezala Sakana-ko emakumeak, Euskal Herriko eta mundu guztiko emakumeekin batera, greba egitera deituak daude. Aurreneko greba feminista lau orduko txandetan izan bazen, aurten 24 ordukoa deitu du mugimendu feministak. *Heteropatriarkatu kapitalistari planto!* leloa du aurtengo deialdiak. Greba feministak bost ardatz ditu: pentsioak, ikasleak, zaintza, enplegua eta kontsumoa. Gaurko grebarekin mugimendu feministak bizitza erdigunean

jarriko duen gizarte eredu berria aldarrikatuko du.

Sakanako mugimendu feministako kideek “ordaindutako lanetan, ez ordaindutakoetan eta doako lanetan greba egitera” deitu dute. Baina deialdia ez da horretara mugatuko: “sexualitatean, kontsumo eremuan, familian, hezkuntzan, arrazismoan, edertasun eremuan eta existitzen diren beste zapalkuntza eredu guztietara ere zabalduko da”.

Aldarrikapenak

Grebaren Sakanako deitzaileek azaldu dutenez, “erabat emakumezkoen gain dauden zaintzen berregituratze soziala” nahi dute. Eta, horrekin batera, doako etxeko lanak salatu dituzte, “gehienetan emakumezkoak garelako horien arduradun bakarrak”. Aldi berean, gaur kontsumoari uko egitera eta autogestioan oinarritutako beste kontsumo ereduak sustatzera animatu dute.

Ibarreko mugimendu feministatik salatu dutenez, “emakumezkoen lan prekarietatea pai-

ratzen dugu”. Horregatik, “lan baldintza eta eskubide ez duinei eta minimoen azpiko soldatei aurre egin nahi diegu, berriz ere, lan egoeren gaineko genero arrakala bizi dugulako”. Emakumezko pentsiodunen egoera “tamalgarrira” dela salatu dute: “erretiratu ondoren, baldintza txarretan, zaintza eta etxeko lanetan jarduten gara, eta jasotzen dugun pentsioa gizonetzkoek jasotzen dutena baino askoz txikiagoa da”.

Sakanako mugimendu feministako ordezkariak esan dutenez, “badakigu kapitalismoa ezin dela berregin emakumeak azpiratu gabe. Emakumeek planto egiten badugu, dena gelditzen da”. Horregatik, “sistemarekiko haustura eragiteko eta paktu sozial berri bat eskatzeko goaz grebara”. Eta nahi duten gizarte eredu mota zein den argitu dute: “enpleguaren sarbidean eta jatorrian oinarritzen ez den herritartasun eredu inklusibo bati ateak irekiko dion ituna nahi dugu. Emakumezkoen eskubide sozialak eta zibilak eskuratzeko eta lanaren esplotazioa, kapazitismoa, arrazakeria eta sexu-generoaren arteko bereiz-

keria gainditzeko borrokatzen arituko gara”. Grebarekin honakoak borrokatuko dituzte: prekarietatea, aniztasunaren kontrako indarkeria matxista, heteroaraua, arrazakeria eta kolonialismoa.

Greban parte hartzeko moduak

Mugimendu feministatik egindako proposamenak:

- Lantoki eta ikasgeletan greba eginez.
- Herrietako eta hirietako mobilizazioetara joanez.
- Zaintzeari uztea eta, hori aldarrikatzeko, amantala balkoian zintzilikatzea.
- Eskualdean edo arloan greba antolatuz eta zabalduz.
- Besoko morea eta txapa jarritz, grebarekin bat egiten dugula adierazteko.

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

STV Beirak lehorrean jarrita

IKD Isolamendu nukleo indartsua

Etxe pasiboetarako egokia 5 9000

Aparteko azala koloreztatua



Joan den urtekoa mobilizazio jendetsua eta anitza izan zen. ARTXIBOA

Dena aldatzeko 28 aldarrikapen

Euskal Herriko mugimendu feministako kideek gaurko greba deialdiaren bidez 28 aldarrikapen zehatz gizarteratu nahi dituzte. Horien guztien bidez, itun sozial berri bat lortu nahi dute, "herritartasun eredu inklusibo bati ateak irekiko dizkion" ituna.

Bizitza prekariorik ez!

- Enplegu duina emakumeondako*! Prekariatateari ez! Inposatutako jardunaldi partzialik ez, soldata arrakalarekin bukatzeko neurri eraginkorrak, behin-behinekotasunarekin bukatzea, pribatizaziorik ez eta azpikontraten errebertsioa!
- Etxeko enplegua balioa, aberastasuna eta ongizate soziala sortzen duen jarduera ekonomiko gisa aitortzea.
- Etxe barneko langilearen figura desagertzea. Lan baldintza onartezinak eta salbuespenezkoak direlako.
- Pentsio duinak emakumeondako*. Gutxienez 1080 euroko pensioa.
- Zaintzarako eta menpekotasunari arreta emateko berezko sistema publikoa: zerbitzu sozial, publiko, doako eta unibertsala.

- Emakume* baserriarren estatutua garatu, baliabidez hornitu eta betearazi.

Indarkeria matxistikar eta heteroaururik gabeko bizitza anitzak!

- Injustizia patriarkalari ez! Emakumeak* berbiktimizatzen dituen prozedura judizialekin amaitu.
- Genero indarkeriaren legea zabaldu, bikote harremanaz gaindi gertatzen diren indarkeria matxista eta LGTBQ+ fobiaren askotariko adierazpenak barnean hartzeko.
- Indarkeria matxista egoerei aurre egiteko baliabide publiko integral eta eraginkorrak bermatu.
- Prebentziarako eta emakumeon* ahalduntzerako baliabideak eskaini.
- Aniztasun funtzionala dugun emakumeon* errealitate espezifikoak bistaratu eta horri erantzuteko baliabideak eman.
- Familia nuklearrean oinarritzen ez diren antolaketa aintzat hartzea zerga sistema, pensioak edota ordaindutako baimenak ezartzean.
- Trans despatologizazioa.

Arrazakeriarik eta gerrarik gabeko bizitzak! Kolonialismoaren aurrean

gure gorputza, lurraldea eta lurra defenda ditzagun!

- Atzeritartasun legea atzera bota.
- Arrazakeriaren ondorioei aurre egiteko politikak garatu: horretarako, errolatzea erraztu, osasun eta hezkuntza sistemarako sarbidea bultzatu, etxebizitza eskubidea eta prestazio sozialak bermatu, enplegu eta formazioan lagundu, ikasketa tituluak parekatu...
- Europar Batasuneko migrazio politika genozidei ez. Mugak ireki eta CIE guztiak itxi.
- Merkataritza askeko nazioarteko itunik ez!
- Euskal Herrian, askotariko gatazkek zeharkatzen gaituzte, tartean "euskal gatazka" delakoak. Hori konpontzeko bidean, presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzen dugu, baita emakume* presoek bizi duten isolamendu hirukoitzarekin amaitzea ere.
- Lurra suntsitzen duten proiektu txikitailerik ez! Erraustegia, fracking edota AHT bezalako proiektuak gelditu!
- Askotariko kolonizazio kultural prozesuen aurrean, Euskara erdigunera. Euskararen ofizialtasuna eta normalizazioa bilatzen duten politikak bultzatu.

Herrietako mobilizazioak

IRURTZUN

MARTXOAK 8, OSTIRALA

12:00 Kontzentrazioa, plazan. Ondoren bazkari autogestionatua, karpán.

16:30 Iruñeko manifestaziora joatea, karpantik.

MARTXOAK 9, LARUNBATA

19:30 Kantirun taldearen kontzertua, Pikuxarren.

22:00 Afaria, Lorena Arangoaren saioa eta festa, Eskolako jantokian.

MARTXOAK 10, IGANDEA

18:30 Nerea Baldaren Ahizpak musikadun kontakizuna, Pikuxarren.

MARTXOAK 13, ASTEAZKENA

18:00 Zinemara irteera, plazatik.

LAKUNTZA

MARTXOAK 8, OSTIRALA

10:00 Gosari autogestionatua, plazan.

11:00 Plazaren apainketa.

11:30 Tailerra: kartelak eta pankartak sortzen.

12:30 Herriari buelta musikatua.

14:00 Bazkari autogestionatua.

17:00 Koreografia erakutsi eta grabatu.

18:00 Kontzentrazio mistoa, plazan.

18:30 Altsasura joateko topaketa.

19:00etan Manifestazioa Altsasan.

ARBIZU

MARTXOAK 8, OSTIRALA

00:00 Mantelak balkoira!

10:00 Megafonia herrian barna.

12:00 Kontzentrazioa, zubiaren.

14:00 Bazkai autogestionatua.

16:00 Eltze-jotzia.

17:30 Beenduba, Argi Bidea elkartean.

19:00 Altsasuko manifestaziyeuen parte hartzea.

MARTXOAK 9, LARUNBATA

19:00 Bakean dagoenari bakean utzibakarriketa, udaletxe batzar gelan.

21:30etan Emakumeen afaria, Alda-bide elkartean.

ETXARRI ARANATZ

MARTXOAK 8, OSTIRALA

12:00 Kontzentrazioa, plazan.



Altsasu Institututuko irakasleak. UTZITAKOA

14:00 Bazkari autogestionatua, Karriestu elkartean.

18:30 Altsasura joateko topaketa, plazan.

URDIAN

MARTXOAK 8, OSTIRALA

10:30 Plazan inguru.

11:00 Gosaia.

11:30 Elkarretaratzia.

12:00 Kalejira Altsun.

16:30 Kafe tertulia, herrientxien.

18:00 Elkarretaratzia, herrientxien.

19:00 Manifestazioa Altsasan.

ALTSASU

MARTXOAK 8, OSTIRALA

09:00 Piketeak antolatze hitzordua, Gure Etxea eraikinean.

09:30-11:00etara Piketeak.

11:00-12:00 Hamaiketako autogestionatua, Gure Etxea eraikinean.

12:00 Kalejira, Foru plazatik.

14:00 Bazkari autogestionatua, Gure Etxea eraikinean.

Arratsaldean: musika, bertsoak, karaokea, jokoak... Foru plazan.

18:00etan Murala margotzea, Intxostiapunta gazte gunean.

19:00 Manifestazioa, Foru plazatik.

MARTXOAK 10, DOMEGA

18:00etan Neskek kirolean proiektzioa, Intxostiapunta gazte gunean.

MARTXOAK 15, OSTIRALA

18:30 Sare sozialak eta mikromatxismoak tailerra, Intxostiapunta gazte gunean.



Etxarriko udaleko alkate eta langileak.

Udalak greba feministaren deialdiarekin bat egin du

Udal hautetsiei eta langileei greba egiteko erraztasunak emanen dizkie. Parte hartzera deitu du

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranzko Udalak greba feminista babesteko erakunde adierazpena onartu du. Euskal Herriko mugimendu feministak, eragile sindikal, politiko eta sozialekin batera gaurko 24 orduko greba deitu duela gogorazi dute udaletik, eta bost ardatz dituela: zaintza, enplegua, pentsioak, ikasleak eta kontsumoa. Adierazi duenez, “greba feminista guztion bizitzan eragiten duten esparruetan kokatzen da, soldatapeko zein doako lanetan, kontsumo ereduaren, sexualitatearen, arrazakerian eta abarretan”.

Udalak nabarmendu du, “ardura kolektibotik abiatuta bizitzaren sostengatzeko itun sozial berri bat eskatzen dio euskal jendarteari, berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutuz, eta zaintzaren berrantolaketa soziala politika publikoen zeharkako ardatza izan behar dela aldarrikatuz”. Udalak, grebaren “motibazio eta proposamenekin” bat egiten duenez, deialdiari babesa agertu eta emakumezko hautetsi eta langileei greba egiteko erraztasunak ematea erabaki du. Aldi berean, etxarriarrak mugimendu feministak deitutako mobilizazioetan parte hartzera deitu du.

Udalak "bultzada feministarekin" bat egin du

“Berdintasunerantz dugun bide luzean norabide bat baino ez dugu: aurrerapausoak ematea”

ALTSASU

Altsasuko Udalak emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna lortzeko lau konpromiso hartu zituen azken bilkuran. Alde batetik, udaletik berdintasunaren aldeko legeak eta politika publikoak bultzatzen segitzea. Bestetik, Altsasuko emakumeen behar zehatzak ikusarazten eta egun indarrean jarraitzen duten desberdintasun adierazpen guztiei dagokien neurria ematen jarraitzea. Aldi berean, udalak emakumezko eta gizonezkoen desberdintasun egoera guztiak gainditzeko jarduketak ezartzeko konpromisoa hartu du. Mugimendu feminista bere borroka eta eskaeretan lagunduko du.

Udalarendako joan den urteko greba feminista “historikoak” agerian utzi zuen “XXI. mendean bete-betean egiturazko desberdintasunak mantentzen baitira emakumeen nahiz nesken bizitzetako esparru guztietan”. 2018ko “erakustaldiak emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak giza-eskubideen urratzean kokatu zituen, eta dei egin zien herritarrei, gizarte-eragileei eta administrazio publikoei buru-belarri jarrai dezaten berdintasuna sustatzen, politika publikoetan sakontzen eta benetako berdintasuna ahalbidetuko duten neurri eta baliabideak ezartzeko lan egiten”.

Udaletik adierazi dutenez, “helburua lortu arte bide luzea dago”. Helburua zehaztu dute: “gizarte justuak, demokratikoak eta berdintasunekoak lortzea eta erakitzea, eta haietan bizitzea, emakumeen eta gizonen bizitzak osotasunean garatuta, askatasunean eta baldintza zein aukera berdintasunean. Geure bizitzetako esparru guztietan eta mundu osoan”. Udaletik “bizitza guztien jasagarritasuna” aldarrikatu dute, “bizitza baldintza berberetan bizi ahal izatea”.

Zaintza pertsona ezagutzea da

Grebaren zaintzari lehentasuna eman, lan horiek ikusarazi eta euren falta agerian utzi nahi du. Asun Berjera Zelaiak zaintza lana zer den bertatik bertara ezagutzen du: Gizarte Zerbitzuen etxez etxeko langilea, adinduen egoitzan 11 urtez aritu zen

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Zer da zaintza zuretzako?

Zaintza pertsona ezagutzea da. Nik bi aldeak ditut: egoitzan lan egin dudala eta, orain, etxez etxe. Nahiago dut etxean zaintzea, pertsona bere tokian ikusten duzu. Normalean, kasu gehienetan, etxeetan zaintzen direnak daude. Berdin da zer den, helduak, haurrak...

Zaintzak emakume aurpegia du. Zergatik?

Hori ikasi dugulako, edo kultural delako.

Eta zure etxez etxeko esperientzian zaintzan ikusi duzuna...

Andreak. Gizonezkoak ez.

Adinduei erreparaturata, zaintza sistema publikoak zer eskaintzen du?

Nik uste dut hasieran jendeak ez dakiela zer nahi duen. Etxean ito egiten zara: “nire aitarekin edo amarekin laguntza behar dut, gaizki jarri da”. Hara joaten zara eta zer behar duen ikusten duzu. Lehendabizikoa, bera nola dagoen entzuten duzu. Gero etxera lan egitera sartzen zara.

Balorazio bat dago, ezta?

Hori gizarte langileak egiten du. Berarekin joaten gara eta hasten gara.

Baloratu du etxez etxeko zerbitzua eman behar dela etxe horretan. Zenbat zaudete etxez etxeko lanean?

Bosten artean lau lanaldi oso betetzen ditugu. Lanaldi erdia eskatuta dut eta beste kide batekin osatzen dugu lanaldi bat. Etxeetan zein lan egiten dituzue? Normalean, dutxak, ohetik mugitu, garbitu, agian gosaria eman, batzuetan erosketak egitea, berarekin medikuarengana joatea... Etxe bakoitzean denbora asko egoten zarete?

Ez. Normalean, goiz guztian zazpi pertsonarengana joaten gara. Zazpi ordu eta hogeita minutuko lanaldia daukagu.



Mandarrik balkoian jartzeko deia. ARTXIBOA

Batetik bestera mugitu behar duzue! Altsasun, Olaztin eta Ziurdian. Nahikoa da?

Nik uste dut ezetz. Batzuek, agian, ez dute eskatzen pentsatzen dutelako... Batzuetan eskatzen duzu itota zaudenean edo... ez molestatzeagatik... mundu bat dago. Gerta daiteke osasun etxetik esatea: uste dugu pertsona honek zerbait behar duela. Ez bakarrik gizarte zerbitzuetara joaten direnak. Aldamenekoek ere: bakarrik bizi da eta, jo, nik ez dut ikusten... Alde pila batetik informazioa iristen da gizarte zerbitzuetara eta han balorazioa egiten da.

Zaintza sistema publikoaren beste eskaintza bat adinduen egoitzak dira. Zuenetik pasa behar da?

Dependentzia balorazioa eskatu behar da. Gero, plaza behar da. Eta itxaron zerrrenda dago. Hemen bi zerrrenda daude: Altsasuko Aita Barandiaran egoitzakoa eta Nafarroako Gobernuarena. Finantziarioarengatik da hori. Udalak herrikoendako plaza batzuk ditu eta gainerakoak

gobernuarekin kontzertatuta daude. Horregatik, gerta daiteke altsasuar bat beste egoitza batean egotea. Norbait hiltzen bada eta plaza hori gobernuarena bada, gobernuak esaten du nor sartzen den, bere zerrrenda duelako. Izan daiteke gure zerrrenda dagoena, kasualitatez, gobernuaren zerrrendan goian egotea. Baina, normalean, hori ez da gertatzen, Nafarroa guztikoa delako zerrrenda. Balorazioaz aparte, zerrrendan zenbat denbora egon den zain eta abar hartzen da kontuan.

Eguneko zentroak.

Iruñean gehiago daude. Hemen Josefina Arregi klinika dago eta, uste dut, momentu honetan itxaron zerrrenda dagoela.

Etxean zaintza lanak egiteko diru-laguntzak badaude?

Bai. Dependentzia balorazioa baldin baduzu, diru-laguntza bat daukazu. Nafarroako Gobernuaren oraintxe bertan diru-laguntza bat ematen hasi da. Baina kontratatutak titulua izan behar du. Oso kontu berria da.

Zein titulu?

Arreta soziosanitarioa. Guk orain dela urte batzuk daukagu. Europako eskaera da. Hasieran plaza gutxi zeuden. Data iritsi da eta jende asko dago titulaziorik gabe. Guk behintzat gure lanean badaukagu. Badakit batzuei, Iruñean esan dietela: atera eta gero, berriz, kontratatuko zaitugu. Dena dago, pixka bat kili-kolo. Eskatzen zuten eta titulua lortzerik ez zegoen.

Horiek guztiak nahikoa dira zaintza publikoak behar bezala eskaintzeko?

Populazioa zahartzen ari da eta, ez. Guztia erreparatu behar da. Dirua duenak arlo pribatura jo dezake. Hor zein panorama dago?

Ez dakit. Ez dut ezagutzen, beti publikoan lan egin dut. Uste dut



Asun Berjera Zelaia Gizarte Zerbitzuetako etxez etxeko langilea adinduen egoitzan.

langileek ez dutela gu bezala kobratuko. Pribatuan dirua atara behar duzu. Publikoan ez. Publikoan diru hau duzu eta hori banatu behar duzu.

Zuen lan baldintzak nolakoak dira? Soldata murriztu ziguten. Aurren pixka bat igo digute. Krisia hasi zenetik diru pila galdu dugu, soldataren % 11. LABetik aste honetan eman digute taula.

Altsasuko egoitzetakoekin harremanik izan duzue?

Izan dugu. Badakit borrokan egon direla orain dela urte batzuk Josefina Arregi klinikan. Ez dakit orain nola dauden. Aita Barandiaranen une honetan, bai: lan karga handia daukate eta ez dira ailegatzen. Pentsa orain gehiago bizi garela, eta nola iristen gara azken urteetara? Laguntza gehiago behar duzu. Gu etxeetara, batzuetan, bi pertsona joaten gara. Denetarik dugu. Agian etxe batera joaten zara eta pertsona bakarrik mugi dezakezu. Moldatzen zara. Baina beste batzuekin, ez. Gero zu etxeetara sartzen zara eta ez duzu garabirik, gorpildun aulkirik... Gero, badakizu, hemen go pisu batzuk oso txikiak dira. Ateak estuak dira, gorpildun aulkia ezin duzu komunera sartu. Etxe batzuk ez dira irisgarriak. Zuk pertsona bat joateko laguntza duzu. Baina, hasieran, joan eta esaiozu obra bat egin behar duela. Pentsa! Behar duzu denbora, behar duzu... Zaintza erraztu egin behar da. Baina hori ezin da egun batetik beste-

ra egin. Horregatik esaten dugu gu, langile guztiak, denok batera lan egiten dugula, helburu batzuekin.

Ikuspegi globalarekin ari zarete?

Etxez etxeko langile, gizarte langile eta osasun etxekoan ar- tean zaintzen dugu pertsona.

Jendeak etxean egon nahi du.

Nik uste dut gero eta gehiago behar dela. Josefina Arregi klinika orain topera dago. Jende asko ari da joaten. Etxean egon ahal izateko, batzuetan pertsona hori egoitza batera eraman behar duzu, zuk gero zaintzan jarraitu ahal izateko. Alzheimer edo duen pertsona bat... azkenean da egun osoa berarekin egotea. Gogorra buruarendako, eta gorpuzarendako. Halako zentro batera ordu batzuk eramatea zureta errazagoa, eramangarriagoa da.

Zaintzailea zaindu egin behar da.

Hori da, zuk urte gehiago eutsi ahal izateko.

Kontratututa zaintza lanean zenbat jende dagoen badakigu?

Askok. Nik ezagutzen ditudan guztiak emakumezkoak dira. Kontratuak egiteko diru-laguntza jende guztiarengana iristen den ez dakit. Ez dakit eskaera guztiak betetzen duen.

"ZAINZAK EMAKUMEZKO AURPEGIA DU HORI IKASI DUGULAKO, EDO KULTURALA DELAKO"

Tramiteak bukatu gabe ere laguntza eskatzaileak hil dira.

Bai. Edo egoitzara joateko eskaera egin eta ez da ailegatu, hil da. Holakoak izan ditugu.

Gertatzen da jendeak zaintza lanetarako pertsona bat kontratatuta nahiko lukeela, baina bere ekonomia-baldintzek ez diotela uzten.

Izan daiteke pertsona horrek Nafarroako Gobernuaren baloraziorik ez izatea eta diru-laguntzarik ez izatea: moldatzen da! Eta zuk esaten duzu: behar duela! Eta ez du dirurik norbait kontratatzeke. Izan daiteke, bai. **Zaintza lanetarako kontratazioak egin behar dutenei gizarte zerbitzuetatik jakinarazten zaie zein diren pagatu beharreko soldatak?**

Bai.

Kasu egiten dizute? Hori ez dakit. Ez dut galdetzen. Suposatzen dut ordainduko dutela. Kontratua egiteko soldata eta dena jarri behar dituzu.

Etxeetan zaintza lanak egiten dituztenak: emakumeak eta etorkinak.

Bai.

Denak?

Etxe barneko zaintzailea badira, bai.

Zer da etxe barneko zaintzailea?

Igande gauean sartzen dira eta larunbat goizean etxe horretatik ateratzen dira. Han bizi dira, familiarekin. Horrek suposatzen du gauean hots egin badizute esnatzen direla eta joaten direla zer gertatzen den ikustera. Egun osoa ari dira lanean. Atsedena? Denetarik izan da, nagusien arabera.

Zaintzaileak lan baimenik ez badu, zer gertatzen da?

Ez dakigu.

Mugimendu feministak saretzea aipatu zuen joan den urtean. Pausorik eman da?

Ez dakit. Oso zaila da. Orain dela gutxi kasu baten berri izan genuen: lan ikuskaritza agertu zen etxean. Familia horrek ez zeukan dirurik eta andreak etxetik joan behar izan zuen. Izan daiteke, dirurik ez izatea eta horrela egin beharra ere. Iruñean bizi bazara eta herri txiki batean bizi den eta laguntza behar duen ama bat baduzu eta... Urdiainen, halako aldapak... Edo alarguna, ez duzu diru asko. Mundu horretan egoera asko daude. Ezin da esan: "bakarrik horrela, hala eta hola. Eta ez bazara hemen sartzen, beno, sartuko zara bestean". Ezetz!!! Mundu bat da!

Dauden egoera guztietarako administrazioa ez da nahikoa malgua.

Horixe!

Gerta daiteke zure senidea zaintzen ari den emakumezko etorkin horrek goi mailako ikasketak izatea.

Bai.

Eta bere familiarekin sorterrian zer gertatzen ari den ez dakigu.

Bai. Ni etxe batean hogeita gutxi urteko neska batekin topo egin nuen. Utzi du bere herrian urte bat ez duen seme bat. Eta hona etorri zen. Ze pena! Argazkiak erakutsi zizkidan. Eta esaten zidan semea hain txikia izanda ez zuela ezagutzen. Aitarekin utzi zuen. Nikaraguarra.

Bazekien etxe barruko zaintzaile izanen zela?

Bai. Oso gogorra, esaten duzu: ostras!

Zaintzen duten pertsona hiltzean langabezia kobratzen dute?

Kontratua ez baldin badute, ezetz. Ez dakit, ez dut sekula galdetu.

Eta lanik gabe gelditzean?

Gizarte zerbitzuetan zerrenda bat dugu. Familiak bakarren bat ezagutzen duten galdetzen badigute zerrenda hori ematen diegu. Esperientziaren berri ematen dute. Guk ezin dugu esan: "ezagutzen dut bat". Familiak hots egiten dute.

"ETXE BARRUKO ZAINZAILEEK LAN ONA EGITEN DUTE. HIRU PERTSONEN LANA"

Etxe barruko zaintzaileak gaixotu daitezke. Halakoetan zer gertatzen da?

Bai. Familia ardura hartzera. **Zaintzaileen lan gaixotasun profesionalak onartuta daude?**

Lantzen ari gara. Ikastaroak egin ditugu berriro ikasteko. Baina azkenean lanean hartutako bizioak oso txarrak dira. Nik nire esperientziagatik ikusten dut urteak pasata ez zaude la gazte bat bezala, indar gehiago dutela. Hori kontutan izan behar duzu, pertsonak lasaiago mugitu behar dituzu.

Zuek zaindu beharko zaituztete?

Jakina! Bizkarra eta denetarik daukagu... Aita Barandiaran egoitzan une honetan baja kopuru oso altua dago. Guk batzuetan ere izan dugu; izan daiteke zerbait egin zarela.

Emakumezko zaintzaileak gainontzeko langileak bezala kontsideratuak zaudete?

Badakite zer lan egiten dugun. Esaten dute gure lana oso gogorra dela.

Hori erabiltzaileen familiek dakite.

Baita. Ez bazaizu tokatu, ez. Jende guztiak dauka ama, edo aita, edo osaba... Herri hau zahartzen ari da. Batzuek oraindik ez dakite, bai. Eta zaintzaileak neskak direla, baita. Gogoak ditugu zaintzan mutilak hasteko. Nik uste dut gure lanak kontsiderazio ona duela.

Eta etxe barneko zaintzaileak, jendeak nola ikusten ditu?

Denetarik. Lan ona egiten dute. Denetarako konponbidea dira. Pentsa, hor egun osoa ari dira. Zuk zure etxean hiru pertsona izateko dirurik baduzu? Goizean, arratsalde eta gauean? Diru hori baduzu? Ez daukazu. Eta etxe guztietan ere ez. Eta etxe barruko zaintzaileek lan hori egite dute: hiru pertsonen lana. **Aitortza handiagoa beharko lukete?** Nik uste dut baietz.

Zaintza erdigunean jarrita, mugimendu feministak asmatu du?

Bai. Baina ea jende guztiari ailegatzen zaion. Hau zabaltzea, andre batek zein lan egiten duen ikus dadin.

Zuek gaur greba egiten baduzue... Zaindutako pertsonaz familiak arduratuko dira, bai.

Zaintza lanetan greba egitea zaila izaten da, ezta?

Bai. Baina behar da zein lan egiten dugun ikusteko. Pentsa etxean daudenak egiten dutela. Kaosa! Zure ama ez da ohetik mugituko, ez du bazkalduko...



Izaskun Larrion, Kattuka haur eskolako langilea.

"Ahaldundu egin behar gara. Eskubide berberak ditugu"

Kattuka haur eskolak ateak itxiak ditu gaur. Ez da zerbitzu minimorik egonen. "Gure lanean, esanen nuke, urte osoan gutxieneko zerbitzuetan gaudela, ditugun ratio izugarriengatik". Izaskun Larrionekin feminizatutako sektoreez hizketatu gara

ARBIZU

Zure seme-alabek izan dituzten zaintzaile eta irakasle guztien artean zenbat ziren gizonezkoak? Eta emakumezkoak? Telefono eskaintza bat egiteko sekula hots egin al dizu gizonezko batek? Ikusi duzu inoiz gizonezko bat hipermerkatu bateko kutxan kobratzen? Eta apalak betetzen? Azken arropa dendetako dendarien generoa zein zen? Imajinatzen duzu gizonezkoarik hotel batean garbiketa egiten? Sartu zaren az-

ken bulegoan zein zen emakumezko eta gizonezko langileen arteko portzentaia? Zenbatetan artatu zaitu gizonezko erizain batek? Zure ikastetxeko sukaldean ari direnak emakumezkoak dira, ezta? Zure inguruan etxe-

"PENTSAERA DAGO: EMAKUMEZKOAK JAIO GARA ZAINZA EGITEKO BEREZKO ZERBAITEKIN"

ko lanak zenbat gizonezkoak egiten dituzte?

Feminizatutako sektoreez ari garenean emakumezko langileak gehiengoaren diren lan arloez ari gara. Sektore horietako askok zaintzarekin lotura dute. Baina haien artean komunean gauza gehiago dituzte: normalean soldata txikiak; gizonezkoen eta emakumezkoen arteko soldata arrakala handia; lan baldintza eskasak (ordutegi eza, ordu asko, egunero etxean lanean, ordaindutako baimenik ez, oporrak...);

kontratuak (gutxienekoaren azpitik, plusik ez, beltzean...); zaintzari lotutako sektore jakin batzuetan etorkin asko lanean; botere edo erabaki guneetatik oso urrun daude eta askotan elkarreetan edo sindikatuetan antolatu gabeko sektoreak dira. Laburbilduz: prekaritatea. Hori da feminizatutako sektoreetako askotan lan egiten duten emakumezkoen errealitatea.

Langile horiei duintasuna emateko hainbatetan zerbitzu publiko egokiak aldarrikatu dira. Greba feministarekin sektore feminizatutako emakumezkoak ahaldundu nahi dituzte. Aldi berean, antolatzearen beharra garrantzitsua dela adierazi nahi da gaur. Horrekin batera, feminizatutako sektoreetako langileei euren egoera publiko egitea zein garrantzitsua den adierazi nahi diete. Baina, aldi berean, sektore horiek erabiltzen dituzten pertsonak langile horien prekaritatearen inguruan kontzientzia hartzera deitu dute.

Feminizatutako sektorea, zer da?

Gure kasuan, adibidez, 0 eta 3 urteko zikloan lanean ari gara. Nik esanen nuke sektore honek % 90, gehiago ez bagara, emakumezkoak garela. 0-3 zikloa zaintzari lotuta dago eta, nik uste, betidanik zaintza horiek emakumeei zuzenean zuzendutako zerbitzu izan dela.

Lanean daramazun denboran bilakaerarik ikusi duzu?

Mantentzen da, gehienak emakumezkoak gara. Gizonezkoak ikusten dituzu. Gure kasuan lankide bat daukagu. Baina ez da batera ohikoa.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza bilakaerarik izan da?

Nik ezagutzen dudanakatik esanen nuke ez dela bilakaera handirik egon. Prestakuntza saioetara joaten zara eta ikusten duzu: gehiengo emakumezkoak izaten segitzen duzu.

Sektore horiek zer dute komunean?

Zaintzarekin harremana duten lanbideak dira hainbat: haurrena, adinduen, beharra duten pertsonena... Jendarteak ez dio zaintza horri duen garrantzia ematen. Uste dut pentsaera bat

"BELDUR HORI: BALDINTZA KAXKAR HAUEK ONARTZEN EZ BADITUT KALEAN NAGO!"

dagoela: badirudi emakumezkoak jaio garela zaintza egiteko berezko zerbaitekin. Gure kasuan hezitzaileak eta zerbitzu anitzetako langileak gaude eta soldata baxuak denok dauzkagu, lan baldintza prekarioak denok dauzkagu. Azkenean horrek feminizatutako sektoreak lotzen gaituen zerbait da.

Prekaritate horrek zer eragin du emakumezkoen bizitzan?

Joera asko dago: "hau hartzen dut edo ez daukat besterik". Eta ez borrokatzea pixka bat hobera joateko. Beldur hori: "baldintza kaxkar hauek onartzen ez badi-tut kalean nago!" Horrek dituen ondorio guztiekin. Pixka bat rol hori asumitzea. Onartze puntu batean zaude: horrela da! Baina ahaldundu egin behar gara. Gu ere pertsonak gara eta eskubide berberak ditugu.

Feminizatutako lanak egiten duten emakumezkoek egiten dutena lan gisa ez dituela aitortzen, sentsazio hori duzu?

Erabat. Gure kasuan, adibidez, erabateko zaintza da. Baina ez zaintza bakarrik: haurrari bazkaria eman, fardelak aldatzea. Ez da hori bakarrik. Haur hauek etorkizunean pertsona osasuntsuak izateko zaintza onak, errespetuzkoak eskaini behar dituzu. Kristoren garrantzia dute, batez ere, adin tarte honetan jasotzen dituzten zaintzak. Eta jendarteak ez du baloratzen. Feminizatutako arlo bat da, orduan: "bueno, horretarako zaudete!" Etorkizunerako duen garrantzia ez da batera baloratzen. Eta hortik, pixka bat, joan daiteke lotuta soldata eta lan baldintza prekario horiek.

Duintasuna emateko zer egin?

Gure lana plazaratu eta jakitera eman. Gu gure kasuan saiatzen gara familiekin: "hau ez da bakarrik haurra utzi eta guk zure haurra zaintzea. Gauza gehiago ditu". Bakoitzak bere arloan, lan horiek zein garrantzia duten plazaratu eta jendarteratu behar duzu.

Horrelako eredurik bada beste herrialderen batean?

Prestatzen Katalunian eta Budapesten egon gara eta egoera antzekoa da. Ikusten duzu sektorea erabat feminizatua dela. Eta halakoetan Madrilgo jendearekin topo egiten duzu eta denek kexa bera da: lan baldintza prekarioak, soldata prekarioak, ez baloratzea egindako lana... Orokorra da.



ITURMENDI

Mozorro garaia ez da amaitu

Aurreko asteburuan eta asteartean ihote ospakizunak izan ziren Sakanako herrietan. Inauterien bi aldeak ikusi ahal izan ziren, herrikoiena zein urbanoena. Hala ere, oraindik mozorroak janzteko aukera badago, asteburuan izanen diren inauterietan

IHABAR

ASTEBURU BETE IHOTE

Ihabardarrek bihar eta etzi ospatuko dituzte inauteriak

Ihabarren ihoteetan egin beharreko aurreneko gauza puska biltzea da. Gazteek etxetik etxeko eske erronda egiten dute larunbat goizean. Jasotakoarekin bazkaria egingen dute Gure Kabiya elkartearen. Arratsaldean, 18:00ak aldera, mahaitik jaso eta ihabardarrak moxorro bihurtuko dira. Horretarako jantzi txuriak eta txanoa jantziko dituzte, guztiak koloretako zintzez apainduta. Moxorro bihurtuta etxetik etxeko erronda izanen da. Baina eskutan erratzak izanen dituzte moxorroek eta haiekin jendea lokatzez, suko hautsekin edo dena delakoarekin zikintzeko prest izanen dira. Gauean

herriko bajeak afaria hartuko du, hartara herritarrek mozorrotuta joanen dira, eguna despeditzeko dantzaldia izanen da. Igandean majo bazkaldu ondoren, familiaren pasadizoa berrituko da. Aitezarko eta Landarra agertuko dira herrian. Azken horrek besoetan Ninia izanen du (zapi batean bildutako egur puska). Hirukotea moxorroak eta hartz izugarri bat aldamenen dituztela ibiliko dira herrian barna, txistulariak lagun dituztela. Ibilbidean barna Landarra oihuka eta negar batean erreguka ariko da Aitezarko zigortu ez dezaten eskatzen. Baina behin plazan, epaileak sutara zigortuko du Aitezarko eta hura izanen da bere azkena. Ondoren zortzikoa dantzatuko dute. Otamenarekin despedituko da ihotea.

ITURMENDI

IHOTEEN BIGARRENA

Bigarren urtez Iturmendin inauteri ospakizunak larunbatean izanen dira

Astearte ihotea pasa eta gero, hiri ihotearen txanda izanen da iturmendiarrendako bihar. Halako ospakizunetan ohienez, mozorroak, jan-edana eta musika izanen dira ongi pasatzeko oinarritzko elementuak. Mozorro-bazkaria hartuko du Aitzkozar elkarteak 14:30ean. Mahaitik jaso eta mozorrotuek kalejira egingen dute. Haren ondoren, gaztetxean pintxo-potea izanen da, 19:30ean. Ihote ospakizunak indarrez segitzeko ogitartekoak izanen dira gaztetxean 21:30etik aurrera.

HIRIBERRI ARAKIL

AITITTARKO BISITAN

Inauteriak direla eta, bihar ospakizunak izanen dituzte hiriberriarrek

Ihote ospakizunak hartuko ditu Hiriberri Arakilek bihar. Egitaraua Txitera elkartearen abiaraziko dute, triki-potea izanen da 11:30ean. Eguerdian herri kirol saioa egingen dute hiriberriarrek. Bazkaldu aurretik mozorrotuen herri argazkia egingen dute. Talde argazki koloretsua eta gero herri bazkarian

bilduko dira eta tripa-zuloa bete ondoren musean, pintxazoan edo partxisean aritzeko aukera izanen da, lehiaketa bana antolatu baitute. Mahaitik jaso eta ariketa pixka bat egiteko txanda izanen da. 19:30ean sokatira saioak eta txapel-jaurtiketa iragarri dituzte. Eguna despeditzek, 20:00etan, Aitittarko erreko dute, bera omen baita gaiztakeria guztien errudun. Gerta liteke eskuan erratza edo zigorra dutela moxorroren bat agertzea eta korrikaldiak eragitea.

ALTSASU

MOZORRO FESTA DESPEDITZEKO, HIRI IHOTEA

Bihar eguerditik aurrera mozorrotutako jende ugari aterako da kalera

Haur ihotearen eta herri ihotearen ondoren, hiri inauteriatan txanda iritsi da Altsasura. Kuadrillek, eta taberneak, izandako ideiak nola gauzatu dituzten ikusteko eguna izanen da biharkoa. Mozorrotuak eguerdian poteatzera aterako dira eta gero kuadrillak bazkaldu egingen dute. Eta musika lagun arratsaldetik gaueko ordu txikiak arte ez da animaziorik falta Altsasun

LARUNBATA 9

12:00 Kalejira Haize Berriak bandarekin eta bere erritmo balkaniarrekin.

13:30 Haize Berriak Banda Foru plazan.

17:00 Mozorrocall Intxostiapuntan. **18:00** Inauteri jaitsiera Txorongo txarangak girotuta, Intxostiapuntatik Foru plazara.

20:00-22:00 Dantzaldia Ingenio taldearekin, Foru plazan.

22:00-01:00 Gazte afaria (3 euro), kuadrilla desfilea, photocall, jolasak eta festa, Intxostiapuntan.

00:00-03:00 Dantzaldia Ingenio taldearekin, Foru plazan.



OLATZAGUTIA

HIRI IHOTEAREN TXANDA

Bihar lagun kuadrillak mozorrotuko dira, eguerditik animazio berezia izanen da herrian

Kalejira berezia hartuko du Olatzagutiak bihar: mozorrotutako kuadrillena hain zuzen ere. Hala ere, aste batean egiten den bigarren mozorro kalejira izanen da, joan den larunbatean herri inauterikoa egin zelako. Bigarren horretan irudimena mozorro bihurtzen da. Eta gaitasun hori saritu nahi izaten du udalak, mozorro lehiaketa antolatzen baitu, aurtan laugarren urtez. 14 urtetik gorakoek parte har dezakete. Bihar, 12:00etan, are-

to futboleko pistan eman behar-ko dute interesatuek izena han dagoen zinegotziari. Hark parte-hartzaileen artean bozkak apuntatzeko orri bat emanen die eta 14:00etarako beteta bueltatu beharko diote. Botoak zenbatuta banatuko da saria bihar bertan, 20:00etan, dantzaldian. Hiru sari izanen dira: 150, 100 eta 50 eurokoak.

LARUNBATA 9

12:00 Mozorro lehiaketarako izen-ematea, areto futboleko pistan. Ondoren gurdien irteera.

14:30 Herri-bazkaria, frontoian.

17:00-19:30 Los Pasai txaranga.

19:00-23:00 Dantzaldia Raizti dj-rekin.

20:00 Mozorroen lehiaketako sariak dantzaldian banatuko dira.



ETXARBI ARANATZ



LAKUNTZA



IRURTZUN - MAIALEN



ARBIZU



BAKAIKU



OLATZAGUTIA

ZIORDIA

INAUTERIAK IXTERA

Herri eta haur ihoteen ondoren, hiri ihotearen txanda da bihar

Ziordiko inauteri egutegia larunbatean itxiko du hiri-ihoteak. Lagun kuadrillak gai bat aukeratu eta berdin mozorrotuko dira. Guztiak 18:00etan aterako dira kalera, eta musika lagun, kalejiran ibiliko dira. Poteoaren ondoren, Errekarteak elkarteak ihote-afaria hartuko du 21:30ean.



LAPORTE ARAKIL



URDIAIN



UNANU



ALTSASU



LIZARRAGA



ARRUAZU



UNANU



BAKAIKU



ALTSASU



ITURMENDI



OLATZAGUTIA



ARBIZU



UNANU



LIZARRAGA



ARRUAZU



LIZARRAGA



OLATZAGUTIA



URDIAIN



UHARTE ARAKIL



ETXARRI ARANATZ



LAKUNTZA



ARBIZU



ETXARRI ARANATZ



ALTSASU





ARRUAZU



UHARTE ARAKIL



URDIAIN



LIZARRAGA



LAKUNTZA



ETXARRI ARANATZ



BAKAIKU



ITURMENDI



IRURTZUN





LIZARRAGA




LAKUNTZA



UHARTE ARAKIL



UNANU



OLATZAGUTIA





BAKAIKU



IRURTZUN - MAIALEN



OLATZAGUTIA



ITURMENDI



LAKUNTZA



UNANU



**SAKANAKO
IHOTEETAKO
ARGAZKIRIK
POLITENA
BILATZEN ARI
GARA.**

ANIMATU ETA IGO ZUREA!

WWW.GUAIXE.EUS



Uharte Arakilen aurten bost kinto elkartu dira.



Arbizuko kintoak eskean ibili ziren herrian barna.



Lakuntzako 35 kintoak astelehenean ibili ziren eskean.



Etxarri Aranazko kintoak gaueko ospakizunen ondoren plazan.


Beleixe Irratia JarriON aplikazioan entzungai

Euskarazko edukiak nahieran ikusteko eta entzuteko telefono mugikorretarako aplikazioa da JarriON, Android eta iOS bertsioak dituenak. Gainera, euskarazko ikus-entzunezkoak telebistarekin lotzeko balio du

SAKAN

JarriON aplikazioa, euskarazko ikus-entzunezkoak telebistarekin lotzen dituen aplikazioa berriro egin du CodeSyntax enpresak. Orain Android bertsioaz aparte, iOS bertsioa du eta lehen soilik bideo-kanalak ikusteko aukera ematen bazuen, orain irratsaioetako podcastak eta zuzeneko irrati eta telebista kanalak gaineratu dizkiote. Beraz, JarriON aplikazioaren bidez zuzeneko irrati eta telebista streaming-ak entzun eta ikusteko aukera dago. JarriON-en eskaintzaren artean Beleixe Irratia dago, Sakanako irrati euskalduna. Chromecast gailu bat izanez gero aplikazioak mugikorrean ikusten uzten duen guztia telebistan ikusteko aukera ematen du.

Aplikazioan hiruki erako menu bat agertzen da goialdean, esku-bian, eta han klikatuz gero, JarriON-eko kanalak agertzen dira, motaren arabera sailkatuak: Irratia edo Telebista diotenetan,



JarriON aplikazioaren interfazea. GOIENA

zuzeneko streaming seinaleak ikusten ahal dira. Ondoan du Chromecast ikonoa. Hori agertuko zaigu etxean telebistak gailu hori baldin badauka (edo tresna bateragarri bat, hala nola Euskaltelen 4Deko gailua). Horrela,

zuzeneko irrati emisioak, telebistak edo baita podcastak ere telebistara igorri daitezke. Tartean euskarazko tokiko hedabideak elkartzen dituen Tokikom elkartekoak, eta horien artean, esan bezala, Beleixe Irratia.

JarriON edukiak

- Euskal Telebista
- Hamaika Telebista
- Goiena Telebista
- Kanaldude

- TBX.eus
- Berria TB
- Gaztezulo TB
- Dantzan
- Bertsoa.eus
- Bilbo Hiria irratia

- Ataria Irratia
- Xorroxin Irratia
- Alea FM
- Arrasate Irratia
- Euskalerrria Irratia
- Beleixe Irratia

2004ko M11ko atentatueta biktimen aldeko isilunea

Astelehenean, 11:00etan, udaletxe parean Madrilgo atentatueta biktimak izanen dira gogoan



Otsaportillon 2018ko ekitaldia. ARTXIBOA

Otsaportilloko Memoria Historikoaren Tokia izendatua

Nafarroako Gobernuak Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan inskribatu du

SAKANA

Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko 29/2018 Foru Legeak ezartzen duen prozedurari jarraikiz, Otsaportilloko lezea Nafarroako memoria historikoaren toki deklaratu zuen Nafarroako Gobernuak ostiralean. Tramitazioa bukatzean behin-betiko lege-babesa izanen du Otsaportilloko lezeak. Lege horren bidez, Nafarroako Gobernuak Memoria Historikoaren Tokiak babestu, kontserbatu, seinalezatu eta hedatzeko lana egingen du. 1936a, gutxienez, 14 gizonezko hil zituzten. 11ren gorpuzkiak berreskuratu eta 7 identifikatu dituzte.

ALTSASU

Espainiako Udalerrri eta Probintzien Federazioak aurkeztutako zirkularra aztertu eta onartu zuen Altsasuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak astelehenean. Mozio horretan, 2004ko Madrilgo martxoaren 11ko atentatueta biktimen aldeko isilunea egitea eskatzen zen. Horrela, astelehenean, martxoaren 11n, 11:00etan Altsasuko udaletxe aurrean egingen da aipatu minutu bateko isilunea eta bertan parte hartzeko deia egin die Altsasuko Udalak herriko bizilagunei. "Martxoaren 11, aldi berean, Terrorismoaren Biktimen Europako eguna da. Herritarrengatik gertuen gauden administrazio garen aldetik, udalek giza eskubideen defentsaren aldeko jarrera izan behar dugu" adierazi du Altsasuko alkate Javier Ollok.

Bestalde, bilkura berean batzordeak erabaki zuen baso lanak egiteko espediente onartu zuen. Egingen diren lanak dira: basoak garbitzea, sasiak kentzea, birsortzerako ez diren itxiturak eta aisialdirako azpiegitura txikiak kentzea. Lanek 35.087,85 euroko aurrekontua dute, haie-tatik 21.436 euro Nafarroako Gobernuak pagatuko ditu.

GOIZERO 10:00-12:00
EGUN ON SAKANA

10:00 Prentsa eta eguraldia
10:15 Batetik bestia
10:20 Eguneako albisteak
10:45 Hizketan
11:20 Sarea: Aralar eta Karrape irrati-koekin
11:55 Agurra

beleixe 107.3 FM

DENBORALDI BERRIA!

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO
GUAIXE.EUS

Gurasoak: "ikusten dugu noren esku gauden!"

Epaia hedabide baten filtrazio baten bidez jakin zuten gurasoek. Epaia jakin bezain laster makina bat hedabidek Altsasuko bide hartu zuten eta auzipetuen gurasoek lehen balorazioa eman zuten. Larunbatean egingen dute pausatuagoa

ALTSASU

Altsasuko Gurasoak taldeko Gotzon Urritzolak eta Koldo Arnanzek albistea jasotzeko "bide okerra" salatu dute, hedabideen bidez jakin baitute epaiaren berri. Arnanzek aitortu digunez, "aldaketaren bat izanen zela espero genuen. Baina ikusten dugu noren esku gauden! Kasu hau zigor bezala hartu dute eta hari berean segitzen dute. Ez dute behar den bezala bideratu nahi". Gurasoek hartuko duten jokabidea ere aurreratu digu Arnanzek: "gu fuerte mantendu behar dugu, hurrengo pausoa ematera".

Urritzolak gaineratu duenez, "epai berbera eman digute: terrorismorik ez, baina zigor handienak". Hala ere, "itxaropenik ez dugu galtzen". Espainiako Auzitegi Gorenera, Konstituzio epaitegira eta Europako Giza Eskubideen Epaitegira joko dutela aurreratu digu Urritzolak. "Epaia behin betikoa ez den bitartean aske egon beharko lukete, ez kartzelan". Gurasoek jendeari eskatu diote eurekin bat egiteko eta "Justizia eskatzen" segitzeko; "bidea luzea izanen dela ematen du". Arnanzek ziurtatu duenez, "hemen eskubideak guk galdu ditugu eta edozeini gerta dakioke". Ja-



Plataformatik adierazpenak egiten.

kinarazi duenez, "gauza guztiak zehazten ari gara, Iruñean prentsaurrekoa emanen dugu larunbatean". Ostiralero udaletxe parean, 20:00etan, egingen den kontzentrazioan parte hartzera deitu dute gurasoek.

Altsasukoak aske herri plataformaren izenean lehen balorazioa Aritz Leozek egin du. Berria jakinda "amorrutik beteta" daudela gaztigatu du Leozek: "Zaballako espetxean segituko dute gure zazpi lagunek epai honen ondoren". Zazpiek kalean beharko luketela aldarrikatu dute.

Plataformakoen iritziz, "argi dago gizartea nazkatuta dagoela kasu honen erabilpen politikoagatik". Plataformako kideendako epaia "injustizia da, muntaiaren beste pauso bat da".

Plataformako kideak azaldu duenez, "argi gelditzen ari da Espainiar estatuan garatzen diren auzi prozesuetan ez dagoela esperantza eta Justizia izateko konfiantza askorik". Horregatik, deia luzatu du: "kanpoan gauden guztiok etengabe segituko dugu euren askatasuna exijitzen".

Mobilizazioez galdetuta, atzarako ez zuten bat bera aurreikusit. Gaur greba feminista denez, "borroka horrekin bat" egingen dute plataformakoek. Baina manifestazioaren ondoren, ohiko kontzentrazioa egingen da. Aldi berean, larunbatean Iruñean izanen den prentsaurrekoan hurrengo hilabeteetan garatuko dituzten ekimenen berri emanen dute. "Noski, ez gara etxean geldirik geldituko". Leozek aurreratu duenez, "mobilizazio potente batean pentsatzen ari gara". Deia ere: "herri guztietan, ahal den leku guztietan, kasu honen injustizia helarazteko eta zabaltzeko beharra ikusten dugu eta hemendik eskatzen dizuegu ahal den heinean laguntzeko".



Altsasuko auziko zigorrak

Auzipetua	Apelazio epaiko zigorra eta egoera
Oihan	13 urte 3 urte: agintearen agenteen kontrako delituagatik. 9 urte: hiru lesio delituengatik. Urte 1: desordena publikoak. Egoera: 845 egun behin-behinean preso.
Adur	12 urte 3 urte: agintearen agenteen kontrako delituagatik. 9 urte: hiru lesio delituengatik. Egoera: 845 egun behin-behinean preso.
Jokin	12 urte 3 urte: agintearen agenteen kontrako delituagatik. 9 urte: hiru lesio delituengatik. Egoera: 845 egun preso.
Jon Ander	9 urte 3 urte: agintearen agenteen kontrako delituagatik. 6 urte: hiru lesio delituengatik. Egoera: 266 egun behin-behinean preso (+37 2016an).
Julen	9 urte 3 urte: agintearen agenteen kontrako delituagatik. 6 urte: hiru lesio delituengatik. Egoera: 266 egun behin-behinean preso (+37 2016an).
Aratz	9 urte 3 urte: agintearen agenteen kontrako delituagatik. 6 urte: hiru lesio delituengatik. Egoera: 266 egun behin-behinean preso (+37 2016an).
Iñaki	6 urte 3 urte: agintearen agenteen kontrako delituagatik. 2 urte: lesio delituagatik. Urte 1: desordena publikoak. Egoera: 266 egun preso (+37 2016an).
Ainara	2 urte Urte 1: mehatxu delitua. Urte 1: desordena publikoak. Egoera: baldintzapean aske.

Txoooootx!

JUANLUZENA
SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE
txotx denboraldia zabalik

ODERITZ
948 604 571 | 680 652 183

Olga Martínez de Lagrán
PSIKOLOGIAN DOKTOREA

Psikologian doktorea
- Minaren tratamendua
- Ansietatea, depresioa, beldurrak
- Masaje psikoemotionala

olgamaitagari@yahoo.es
639 408 118

sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357



Altsasuko Gurasoek hedabideei adierazpenak egin zizkieten atzo.

Altsasuko auziko epaia berretsi dute

Espainiako Auzitegi Nazionalako Apelazio Aretoak helegiteak osotasunean ezetsi ditu eta epaia berretsi. Iñakiren helegitea partzialki onartu dute eta zigorra 10 urtetik 6ra jaitsi diote. Espainiako Auzitegi Gorenean kasazio helegitea aurkeztu daiteke

SAKANA

Altsasuko auzipetuen askatasuna eskatzeko ostiralean egindako kontzentrazioan zeudenak meteorito bat atmosferan sartzen ikusi zuten. Bakarren batek zerbaiten seinale izan zitekeela aipatu zuen. Zerena galdetu zioten aldamenekoak. Eta ez zuen erantzuten jakin. Seinalea izan zen, bai: atzera ere auzipetuak,

euren guraso eta abokatuak hedabideen bidez jakin dute kontrako epaia izan dutela.

Jose Ramon Navarro Miranda (txostengilea), Eloy Velasco Nuñez eta Enrique Lopez y Lopez epaileek atzo jakinarazi zuten Altsasuko auziko auzipetuen helegiteak osotasunean ezetsi dituztela eta Espainiako Auzitegi Nazionalako Zigor Are-

toko Lehen Sekzioak Altsasuko auzian emandako epaia berretsi dutela. Epaileek osotasunean bere egiten dute epaian frogatutzat eman ziren gertaerak. Horren arabera, 2016ko lastailaren 15ean zigortuek eta beste pertsona talde batek bi guardia civil eta haien bikoteak Altsasuko tabernan eta kanpoko aldean eraso zituzten.

Beraz, agintearen agenteen kontrako atentatuagatik, lesioengatik, desordena publikoagatik eta mehatxuagatik jarritako zigorrak berretsi dituzte: 13 urteko espetxe zigorra Oihanendako, 12 urtekoa Adurrendako eta Jokinendako, 9 urtekoa Aratz, Jon Ander eta Julenendako eta 2 urtekoa Ainararendako. Iñakiren helegitea partzialki onartu dute epaileek eta espetxe zigorra 10 urtetik 6ra jaitsi diote. Zigorra ezarri ziotenean lau delituekengatik jarri zioten, baina bi delitu besterik ez zizkieten leporatu. Espainiako Auzitegi Nazionalak berak emandako epaia zuzendu behar izan zuen garagarrilean batuketa gaizki egin eta 10 urtera beharrean 13 urtera zigortu zutenean. Hala ere, epaian auzipetu bakoitzari akto jakinik ez die egotzen: “guztiek eragin zituzten biktimen lesioak, nahiz eta guztien erasoak kaltetuei ezin izan den zehaztu”.

Diskriminazio astungarria bai

Auzia Madrilan epaitzeko arrazoa izan zen auzipetuei delitu terroristak egotzen zizkietela. Hori zen fiskaltzaren eta akusazioen eskaera. Espainiako Auzitegi Nazionalan bitan aztertu dute auzia eta lehenengo aldian bezala, oraingoan ere Apelazio Aretoko epaileek ez dute gertaeratan terrorismo zantzurik ikusi. Hala ere, epaileen iritziz “biktimen kontakizuna akusatuena baino sinesgarriagoa da”. Horretarako, “frogekin berretsitako deklarazioez aparte, salatzailen lesioak agerian utzi zituzten mediku txostenak ere”. Talde ezagutza-saioen balioa ere aitortu du auzitegiak.

Epaileen iritziz, Zigor Aretoko Lehen Sekzioak egoki erabili zuen Zigor Kodeko 22.4 artikulua,

ideologi diskriminazio astungarriari dagokiona: “konstituzio baldintzetatik, guztiz zilegi dirudi”. Berretsi duenez, “akusatuaren motibazio nagusia biktimak Guardia Civileko kide izatea da, edo harekin erlazioa izatea, bikotekideak ere biktimak izan zirelako”. Astungarriak zigorrak handiagoak izatea ekarri du.

Ukatutako beste argudio batzuk

Auzitegiak ukatu du ere prozesuko bermeak urratu zirenik Guardia Civilak auziaren ikerketa egitean eta Concepcion Espejel epailea auzipetuak epaitzean. Espejel Guardia Civilaren koronel baten emaztea dela eta erakundearen merituzko domina jaso zuen. Hiru epaileek iritzi hori aurreratu zuten abokatuek Apelazio Aretorekin epaimahiaren osaketaren kontrako errefusatzeari atzera botatzean. Velascok eta Navarrok Guardia Civilaren ohorezko dominak jasoak dituzte. Bestetik, Iñakik gau hartan grabatutako bideoaren balioa ez du aitortzen, “ez du eman nahi zaion efizientzia”. Aldi berean, Adurren abokatua- ren argudioak ere atzera bota ditu. Epaitegian esan zuen liskarra izan zen garaian etxean lotan zegoela, eta gau hartako bideo eta argazkietan bestelako arropa zuela. Epaileendako, ordea, “posible da, etxea gertu dagoenez, arropaz aldatzea, amak esan bezala 02:30ean etxean ego- tea eta gero gertakarien tokian izatea”.

**LEHEN SEKZIOAK
BEZALA, APELAZIO
ARETOAK GERTAERAK
EZ DITU
TERRORISMOTZAT JO**

BIL TOKI
TABERNA • JATETXEA

**Ongi
pasa
ihauterietan!**

948 467 876 • Altsasu

*Ongi pasa
inauterietan!*

Hijos de Goikoetxea

Tel. 948 467 317 • 948 562 341 • Geltoki auzoa 11 • ALTSASU

Ogiaren artisauak

PORTUKO okindegia

goza dezazuela
ihauterietan...

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Planto!

Euskal Herriko Mugimendu Feministak grebara deitu ditu Emakumeak*, bollerak eta transak, hau da, heteropatriarkatuak zapaltzen dituen subjektuak. Helburuen ardatzak Pentsionistak, Ikasleak, Zaintza, Enplegua eta Kontsumoa dira; era berean, He-

teropatriarkatu kapitalistari, plan-to! eta Bizitzak erdigunean aldarri nagusiak. Egunean zehar hainbat jarduera egingen dituzte, hitzaldiak, hamaiketakoak, bazkariak eta beste makina bat.

Alabaina, gonbidatu zuzenak izan gabe, gizonak ere egiten ahal dute ekarpena hainbat eginkizun beren gain hartuz, hala nola seme-alaben eta zaintzen ardura, lantokietako gutxieneko zerbitzuak, merkatuan ez kontsumitu, eta baita mobilizazioetan ere parte

hartu, betiere atzeko aldean eta isilik, emakumeak baitira protagonista.

Egoera berria gizarteratzen ari da azken urteotan, zehazki, emakumeek eta soilik emakumeentzat deialdiak egitea feminismoaren aldarrikapenak gizarteratzeko. Hala ere, emakume asko dira aldarrikapen feministen aurkako jarrera azaltzen dutenak, eta ez gizon gutxi aldekoa dutenak. Bestalde, zapalkuntza, goitik beherakoa –sozioekonomia– eta zeharkakoa

–generoa, kulturala...– izaten ahal da. Horrela, bitxia gertatzen da heteropatriarkatuarekiko jarrerak aintzat hartu gabe, mobilizaziora deitutakoa emakumea* izatea. Emakume*-bollera-trans versus gizona. Horretan datza berrikuntza, hau da, emakumeek beren gain hartu dute aldarrikapen feminista kudeatzeko lidergoa, gizonen sudursartzerik gabe, eta ikusgarria da nola maila sozial eta arlo guztietako emakumeek batzeko aldarria egiten duten. Bitartean, gizona, off.

Ez da buruketa erraza; izan ere, zapalduak edo bortxatuak ama eta aita ditu, eta zapaltzaileak edo bortxatzaileak, berdin.

Nolanahi ere, errealitatea duguna da eta, estatistikek argi asko azaltzen dutenez, emakumeak dira eredu sozioekonomiko liberal-klasista honetan egoera zailenak eta okerrak jasaten dituztenak. Horrela bada, izan dadila 2019. urteko m8 hau urrats handi bat berdintasunaren bidean, eta sistema heteropatriarkatu kapitalistari, Planto!!!

HARA ZER DIEN

Emakumezkoek gizonetzkoek baino lasaigarri gehiago kontsumitzen dituzte

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Zaintza lanen gainkarga eta biolentzia omen daude egoera honen atzean.

Droga guztietan gizonetzkoak daude emakumeen aurretik kontsumo mailan, psikofarmako bi motatan izan ezik, hipnosedanteak eta analgesiko opioideak. Biak errezetarekin erosi behar diren arren, alkohola eta tabakoaren atzetik sustantziarik kontsumituenak dira eta kalamua edo kokaina baino gehiago

kontsumitu ohi dituzte emakumeek.

Azken hamabi urteetan psikofarmakoen kontsumoa, hipnosedanteak batez ere, hirukoiztu egin da. 2018. urtean sustantzia hauek kontsumitu zituztenen artean, %63,9a emakumeak izan ziren, bai erabilera puntual bat eginez edo ohiko erabilerarako. Emakume hauen adina 47,5 urtekoa da batez beste. Jakina da adinarekin kontsumoa gora doala, beste sustantzia batzuekin gertatzen de-

naren kontra, adinarekin kontsumoa jaisten joaten baita.

Sustantzia hauen kontsumoa estalia izaten den arren, ez dago estigmaterekin lotua, gauza normalizat hartua dago emakumeen artean eta ezezagutza handia dago kontsumitzaileen artean. Sustantzia hauen gehiegizko erabilerak dependentzia sortzen duela ez da gauza ezaguna, edo behintzat ez zaio ematen duen garrantzia.

Orokorrean sustantzia guztietan gizonetzkoen kontsumoak dira na-

gusiak, nahiz eta berdintasuneko joera ageria den mundu mailan gazteen artean. Aditu baten esanetan, emakumezkoak medikurengana gizonak baino gehiago joateko ohitura dutenez eta osasun mentaleko arazoak adierazten dituztenez, logikoki hipnosedanteen errezeta gehiago eman ohi zaie.

Sustantzia hauek beste sustantzia batzuen ondoan ikustea kostazko jendea, heroinaren ondoan adibidez, baina benetan biak drogak dira, batzuk osasun etxean errezeta batekin lortzen direnak eta besteak berriz kalean; ezberdintasuna legala da baina ez zientifikoa. Heroína morfina (opioideo bat) deribatua da, eta errezeta bitartez lortutako haue-

tarikoak ere opioideak dira. Errezeta bitartez lortzen direnez, arrisku gutxiago dakartzatela pentsatzera garamatza, gainera.

Espainiako Ministerioaren arabera, Espainian psikofarmakoen erabilera desegokia 775.762 pertsonen egiten omen dute.

Honetaz guztiaz gain, Espainia Europa mailan hipnosedante hauen erabilera desegokian lehengoa da. Orokorrean antsietaterako edo lo ezarako errezetatu ohi dituzte hipnosedanteak, eta arazo horiek nondik datozen ikusteko lana ez da egiten. Askotan egoera hauek emakumezkoek jasaten dituzten zaintza lanen gainkargak, estresak, biolentzia egoerak... sortuak izaten dira.

GUTUNA

Sakana Trenaren Alde plataformaren mozioa Altsasun

ARANTZA BENGOTXEA, FCO. JAVIER PAZ, HAIZEA RAMIREZ DE ALDA

ALTSASUKO EH BILDUKO ZINGOTZIAK

Otsailean Altsasuko udalbatzak Sakana Trenaren Alde plataformaren mozio bat landu zuen. Mozioak Sakanan eta Nafarroan AHTren proiektuak geldiarazteko eskatzen zuen, egungo tren-

bide-azpiegitura hobetzeko aukera aztertu arte. Goazen Altsasuren eta EH BILDuren babesa besterik ez zuen izan, baina AHTren lanak gelditzeko proposamena indartu egin da.

UPNk kontra bozkatu zuen, botoa argudiatzeko hitz-txanda erabili gabe. Argudiorik ez dagoenean, argudiatzea ezinezkoa da.

PSOEk ere kontrako botoa eman zuen, baina onartu zuen beste aukera batzuk aztertzeko prest zegoela, beti ere Sustapen Minis-

terioak aurkeztuko balitu. Sustapen Ministerioak ez du inoiz alternatibarik aurkeztu, beraz, PSNk kontraesanak agerian uzten ditu.

Geroa Baik une oro eztabaida saihestu zuen eta iaz onartutako mozio batera mugatu zen. Argudio falta eta nagusikeria politikoaren adibide garbia izan zen, eztabaidatzeari uko eginez, plataformako kideek zuzenean interpetatu arren.

AHTren linea eraikitzearen aldeko taldeetako bat ere ez da gai izan AHTren eraikuntzak

Altsasuri ekar liezaiokeen onurarik aipatzeko. Hala ere, alferrikako obra hau geldiaraziko luke ten argudioak pilatzen joan dira. Esaterako, ikerketa informatiboan bertan jasotako ingurumen-afekzioak; EHUKo irakasleek egindako azterketak, bideragarritasun ekonomikorik ez dagoela erakusten dutenak; Europako Kontuen Auzitegiak egindako txostenak, abiadura handiko lineak eraikitze zeko erabakia iritzi politikoetan oinarritzen dela nabarmentzen

dutenak. Espainiako Kontu Auzitegiak egin duen txostenaren arabera, Gasteizko AHTren geltokiaren proiektuak 139 milioi euroko zuloa du eta oraindik ez da martxan jarri.

Aipatutako guztiak astakeria honekiko gero eta oposizio sozial handiagoa sortu du. Martxoaren 30ean Altsasuko kaleetan bistaratuko da aurkakotasun hori, Sakana Trenaren Alde plataformak antolatutako manifestazioan. AHTrik ez, Tren Sozialaren Alde.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@komunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Patxi Lazkoz Flores

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZKIDEAK



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 8

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

LARUNBATA 9

ALTSASU Gazte agenda. Inauteriak: fotocall, afaria eta diskoteka. 17:00etatik 01:00etara, Intxostiapuntan.

LAKUNTZA Haur kantari jaialdia. 18:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Emakumeari buruzko jardunaldiak. Katirun taldearen kontzertua. 19:30ean, Pikuxarren.

IRURTZUN Emakumeari buruzko jardunaldiak. Afaría eta Lorena Arangoaren emanaldia. 22:00etan, eskolako jantokian.

IGANDEA 10

IRURTZUN Mendi irteera: Ezkaba-Saigotz 15 km-tako ibilbidea edo Ezkaba-Olabe 13 km-takok ibilbidea antolatu ditu Iratxo elkarteak. 07:00etan, egoitzatik.

ALTSASU Gazte agenda. *Neskak kiroletan* proiektzioa. 18:00etan, Intxostiapuntan.

IRURTZUN Emakumeari buruzko jardunaldiak. Ahizpak kontakizun musikatua. 18:30ean, Pikuxarren.

ALTSASU *Green book* filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 11

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea. 12:00ean, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 12

ZORION AGURRAK



Irati
8 urte!! Zorionak familia guztia-
ren partez, zure lehengusu
Olaiaren aldetik
bereziki!!



OLAZTI Desfibriladore birziklatze ikastaroa. Sakanako Mankomunitateak antolatuta. 16:30etik 20:30era, kultur etxean.

Astibia, Nabarralde fundazioko kidea. 19:00etan, kultur etxean.

ASTEAZKENA 13

IRURTZUN Emakumeari buruzko jardunaldiak. Zinemara ateraldia. 18:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Etxarri Aranazko San Miguen irin errotari buruzko hitzaldia. Hizlaria: Victor Manuel Egia

OSTEGUNA 14

ALTSASU *Bajo el mismo techo* gaurkotasunezko filmaren emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU *El orden divino* zineforum emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.



IRURTZUN Pintura tailerraren *Inspirazioak* margotzen harrapatu behar zaitu erakusketa. Pikuxarren.



ALTSASU Altsasuko inauterietako erakusketa. Otsailaren 25etik martxoaren 8ra. Astelehenetatik larunbatetara 18:30etik 21:00etara eta igandetan 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.



LORTIA KULTURA

ALTSASU Lehengo jostailuak erakusketa. Martxoaren 11tik 31ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan 18:00etatik aurrera eta igandean 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.



ALTSASU Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa. Guaixeren 25. urteurrena. Martxoaren 11tik 29ra arte. Astelehenetik ostiralera 15:00etatik 21:00etara, liburutegian.



UTZITAKOA

ALTSASU. Adela Sanchezen eta A. Arrizabalagaren artelanen erakusketa. Otsailaren 15etik apirilaren 15era. Asteartetik ostiralera 16:00etatik 21:30era, eta asteburuetan 10:00etatik 18:00etara, Dantzaleku tabernan.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA



Mari Carmen Zelaia Aiestaran

Beti izango zara
gure bihotzetan

Etxekoak

ESKELA



Mari Carmen Zelaia Aiestaran

(Karmele Garziandia Mendiñeta idazkariaren amaginarreba)

Urak dakarrena
urak daroa,
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da.

Iñigo Aritza ikastolako guraso, irakasle,
ikasle eta langileak

ESKELA

Doroteo Araña Goñi

—Goian bego—

Amiñe beti sukeldian kantas
Zu berris kontu kontari
Biloba guziek zuen inguben
seme-alaben opari
Zauden lekuben zaudela yonda
Seittukuezu gu zaindari

Zu familiye

Etxarri Aranatz, 2019ko martxoaren 7an

OROIGARRIA



Gorka Larrea Ondarra

VII. urteurrena

Egunero zaitugu
oroitzen,
uneoro zaitugu
sentitzen,

denbora aurrera
doan arren,
gure artean
zaitugu sentitzen.

Amiña Katalina, izeba Pilar, Koldo, Irene, Oihane eta Maitane

Arbizu-Bakaiku

ESKELA



Doroteo Araña

"Esperantzaz beteriko izar bat
gehiago piztu da zeruan"

Karasatorretarrak, maitasunez

(Etxarri Aranatz)



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com



JAIOTZAK

- **Laia Lakuntza Bakaikoa**, otsailaren 28an Arbizon
- **Arai Almirantearena Alzueta**, martxoaren 3an Irurtzun

HERIOTZAK

- **Felix Perez Pan olaztiarra**, martxoaren 5ean Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU
NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROAK

Cederna Garalur
Elkarteak enpresa-
kudeaketari buruzko bi
ikastaro antolatuta ditu.

"Antolatuta zure paperak
ogasunarekiko betebeharrak
betetzeko" martxoaren
12an, 10:00etatik 14:00etara
eginen da. Eta "Ziurtagiri
digitalak eta ogasunarekiko
izapideak" martxoaren
20an, asteazkenean,
10:00etatik 12:30era izanen
da. Informaziorako
edota izena emateko: 619
328 264 telefonoa edo
sakana.admon@cederna.
es e-posta helbidea.

LEHIAKETAK

GAZTEWOOD Altsasuko
gaztetxearen III. Film
laburren txapelketa.
Gehienez 15 minutu. Lanak
MP4 formatuan, DVDan
edo pendrivean aurkeztu
behar dira 2019ko mar-
txoaren 19a baino lehen.
Informazio gehiagorako
gazteewood@gmail.com

edo sare sozialetan gazte-
wood profilean.

Kanpo desfibriladore
automatizatua: DYAK
martxoaren 16an,
9:00etatik 15:00etara
ikastaroa emanen du Al-
tsasun. Informazioa jaso
edo izena emateko: for-
macion@dyanavarra.com

Altsasuko Udaleko
Emakumeen bilgunea
zerbitzuaren ikastaroak:
Jendaurreko komunika-
zioa (martxoak 2 eta 16,
10:00-14:00), Erabili mo-
bila hedabide moduan
(taldeak adostuko du
egutegia), Zaindu ezazu
zeure burua (martxoak 21,
28, apirilak 4, 11 10:00-
11:30 edo 18:30-20:00),
Autodefentsa feminista
apirilak 6, 9:00-14:00 /
15:00-18:00. Zinean sar-
tzen gara (ikastaro hau
gizonentzat ere zabalik:
martxoak 6, 13, 20 eta 27
18:00-20:00). Ikastaro
bakoitzak 12,50 euro. Izen
ematea: 948 564 823/ 948
468 343 tfnoetan, Gure-

etxean edo berdintasun-
na@altsasu.net emaillean.

OHARRAK

Bidelagun izan nahi?
Mintzakide programaren
bidez euskara praktikatzera
elkartzen dira hizkuntza
ikasten ari direnak eta
hizketatzeko ohitura dute-
nak. Euskaldun batekin,
bidelagun batekin aritzen
dira. 600 482 024 telefo-
noan edo AEKren Itsasi
euskaltegia informazioa.

Crowdfunding Kanpaina:
Aritz Ganboa de Migel ar-
tzaingaztagile arbazuarra-
ren erronkan parte hartzera
gonbidatuta zaudete. Arrua-
zutik izabarraino mendi las-
terketa eta gazta trukaketa
Bideak dokumentalean ja-
sotzeko kanpaina laguntze-
ko diru bilketa egiten ari dira.
Informazioa <http://www.bideakdokumentala.eu/eu/crowdfunding-kanpaina-web-gunean>.

www.iragarkilaburak.es

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es



Gure Pilotako Irati Igoa eta Elai Gomez, besarkatzen. UTZITAKOA

Irati Igoak Euskal Herriko Paleta Gomako finala jokatu du

PALETA GOMA Espinalekin batera jokatu du finala bihar Mallabian. Nafarroakoan, Gomezekin aritu zen

Irati Igoa Sesma etxarriarra futbolaria eta palista da. Futbolearen Mulier taldean dabil eta palista moduan Etxarri Aranazko Gure Pilota klubean. Asteburuan pilota gomako bi txapelketetako finalerdietan aritu zen etxarriarra eta batean galdu eta bestean irabazi egin zuen.

Nafarroakoa galdu

Batetik, Gure Pilotako Elai Gomez taldekide etxarriarrarekin Nafarroako Euskal Pilota Federazioko Nafarroako Paleta Gomako finalerdietara sailkatu zen Irati Igoa, eta aurreko larunbat goizean jokatu zuten finalerdia. “Egia esan, finalerdietan ez genuen partida ona egin, 25 eta 19 galdu genuen Mendillorri klubeko Espinal eta Azanzaren kontra, eta txapelketatik kanpo geratu gara” aitortu du Igoak.

Ondoren, arratsaldean, atzera ere pala hartu eta Abetxukoko

bidea hartu zuen Irati Igoak, Emakumezkoen Paleta Gomako Euskal Herriko Irekia Txapelketako finalerdia jokatzeke. Kasu honetan, Espinalekin osatu zuen bikoa Irati Igoak, goizean beraren kontra Nafarroako Txapelketa galdu eta gero. Ibañez eta Ruiz de Azua izan zituzten aurkari. “Euskal Herriko finalerdietan hobeto aritu nintzen; 30 eta 12 irabazi genuen” azaldu du Igoak.

Larunbatean EHko finala, Mallabian

Irati Igoak eta Espinalek larunbatean, martxoaren 9an jokatuiko dute Euskal Herriko Irekiko Txapelketako Paleta Gomako finala, Mallabian, 16:00etan, Murgaren eta Perez de Arriluzearen kontra. Igoak aipatu digunez, finalak telebistan eskainiko omen dituzte, elite mailakoa eta lehen mailakoa.



June Kintana Espainiako Neguko Jaurtiketa Luzeen Txapelketan. ESPAINIAKO ATLETISMO FEDERAZIOA, MIGUELEZ TEAM

June Kintanak urrezko domina lortu du Jaenen

DISKO JAURTIKETA Espainiako Neguko Jaurtiketa Luzeen Txapelketa jokatu zen asteburuan Jaenen eta disko jaurtiketan urrezko domina lortu zuen June Kintana bakaikuarra (53.46 m), nagusitasun handiz

Espainiako Neguko Jaurtiketa Luzeen Txapelketa jokatu zen Jaenen. June Kintanak (Grupompleo Pamplona Atletico) ez zuen hutsik egin eta diskoa urrutienara jaurti zuen atleta izan zen (53.46 m), aurreko urteko garaipena errepikatuz. Lau jaurtiketa egin zituen bakaikuarrak eta laurek urrea balio zuten (51.89 m, 52.80 m, 53.46 eta 52.36

m) Andrea Alarcon (AA Catalunya) bigarren sailkatutakoaren 51.12 metroko distantzia gainditzeko baitzuten. Hirugarrena Mar Morant (CA Safor Delikia Sport) sailkatu zen (50.78 m).


Asteburuan Europako Jaurtiketen Kopa jokatu da Samorinen (Eslovakia), baina Kintana ez da bertan egongo. “Aurten zorrotz jarri dira minimoekin.

55 metroko minimoa eskatzen zuten eta 53.46 izan denez egin dudan luzeena, ezingo naiz joan. Sentsazio onekin nenbilen, baina ez naiz 55 metrora iritsi” azaldu digu Kintanak.

Nolanahi ere, 24 urteko gazteak progresio bikaina du. Leongo CEAR (Centro Especializado Alto Rendimiento) teknifikazio zentroan trebatzen da.

Gure Pilotakoak txapeldunak!

PILOTA Labriten jokatu du Nafar Kirol Jolasetako Binakako Txapelketako finala, hurren 1. mailan Arbizuko Aldabide klubeko Hasier Baztarrikak eta Xabi Lakuntzak 18 eta 15 irabazi zieten Oberenako Sanchez eta Larrainzarri, final oso estuan. Txapeldunek euren entrenatzaile Lino Arrutiri eta Jose Mari Berastegiri eskerrak eman nahi dizkiete.



NAFARROAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOA

EHko Kluben Arteko finala: Irurtzun vs Oberena

PILOTA Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketako finala igandean jokatu dute bi talde nafarrek, Tolosako Beotibarren, 17:00etan. Irurtzunek talde beterranoa eramango du finalera eta Oberenak talde gaztea

Igandean jokatu da Pilotabizi Pelotazaleen Elkartek antolatutako Euskal Herriko Kluben Arteko V. Txapelketa Nazionalako finala, Tolosako Beotibar pilotalekuan, 17:00etan. Miguel Berazak zuzentzen duen Irurtzun klubaren helburua izazko arantza atera eta txapela janztea izango da. Izan ere, aurreko urtean Euskal Herriko Kluben Arteko finala jokatu zuen Irurtzunek, eta nahiz eta faborito argia izan, Zazpi Iturriren kontra galdu egin zuten finala. Aurten txapelarekin etortzea da helburua, baina irurtzundarrek lan handia egin beharko dute Obererenaren kontra.

Iruñeko Oberena klubetik pilotari handiak atera izan dira: Irujo, Ezkurdia, Beloki, Eulate, Retegi Bi, Arretxe... eta Euskal Herriko Kluben Arteko finalera pilotari labekada berria aurkeztu dute; pilotari gazteak baina prestatuak aurkeztuko ditu Iñaki Barbajero teknikariak. Aldiz,



Irurtzunek arantza atera nahi du eta EHko klub txapela lortu nahi du. PILOTABIZI

Irurtzun klubeko pilotariak beterranoagoak dira, Alberto Ongay, Iosu Bergera, Ollo eta Olazabal. Beraz, beterranoak gazteen kontra ariko dira. “Txapelketa honen pisua beterranoek daramate, baina baditugu bikain

dabiltzan gazteak, Arbizu edo Nazabal, esaterako. Ona da pilotari gazte horiek afizionatuetan dena irabazi duten pilotariekin elkarrekin entrenatzea. Belaunaldi aldaketa emateko desiotan gaude, baina hori kan-

txan erakutsi behar da. Euskal Ligan gure pilotari gazteak ari dira lehian, baina Euskal Herriko Kluben Artekoan beterranoen alde egin dugu, sari ekonomikoa garrantzitsua delako eta lortu beharra dagoelako” azaldu du Irurtzun klubeko arduradun Migel Berazak.

“Gure pilotariak pilotari askoz trebatutakoekin eta beterranoekin aritzeko sekulako aukera da hau, euren sasoia neurtzeko” azaldu zuen Barbajerok. Oberena behetik hasi zen lehian Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketan eta euren sorresarako finalera sailkatzea lortu dute, buruz burukoan espezialistik izan gabe. Canabal ariko da lau t’erdian, Garcia buruzburu eta Mata eta Aldabe binaika. Finala “konplikatu” ikusten dute eta hirugarren partidan, Binakakoan, dute esperantza jarria. Aldiz, Irurtzunek jokoan dauden hiru partidetan aukerak ikusten ditu.

Finala zuzenean ikusi ahal izango da www.pilotabizi.com web gunean eta pilotari lotutako hainbat web guneetan.

Pablo Lopez de Goikoetxeari errekonozimendua

Pilotabizi Pelotazaleen Elkartek, Euskal Herriko pilota klubetan egin duten lan handia eskertzeko eta pilotaren alde bere lan eskuzabala aitortzeko, oroigarria emanen die igandeko Beotibarko finalean Euskal He-

rriko pilota klubetako 8 ordezkari, tartean Sociedad Deportiva Alsasuako (SDA) Pablo Lopez de Goikoetxeari. 1968 urtean sortu zen SDA, eta Pablo Lopez de Goikoetxea hasieratik egon zen zuzendaritza taldean eta pilota atalean. Urte hauetan guztietan ehundaka gazte trebatu dira Altsasu pilota klubean eta Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketa antolatzen du klubak. Gaur egun Pilotajauku elkarteak darama pilota eskola. Errekonozimenduak “izugarriko poza” eman diola onartu du egun 1985 urtetik Nafarroako Euskal Pilota Federazioko juntan dagoen Pablo Lopez de Goikoetxeak. “Pilotaren alde egin dakoagatik Nafarroatik kanpo aitortzeak zerbait esan nahi duela uste dut” gaineratu du altsasuarrek.

Finala

Euskal Herriko Kluben Arteko finala: igandean, 17:00etan, Beotibarren

Oberena / Irurtzun

- **Lau t’erdian:** Canabal (Oberena) / Olazabal (Irurtzun)
- **Banaka:** Garcia (Oberena) / Ongay (Irurtzun)
- **Binaka:** Mata-Aldabe (Oberena) / Ollo-Bergera (Irurtzun)

Binakako Pilota Txapelketa: bueltan da ikuskizuna

PILOTA Finalerdiko lehen jardunaldian Zabaleta eta Martija elkarren kontra ariko dira etzi Eibarren

Binakako Pilota Txapelketako hasierako ligaxka jokatu eta gero, Elezkano II.a-Rezusta, Irribarria-Zabaleta, Victor-Albisu eta Altuna III.a-Martija sailkatu ziren finalerdietarako. Astebeteko atsedenaldea eta gero –soilik Zabaletak jokatu zuen aurreko asteburuan, Tolosan– finalerdietako lehen jardunaldia jokatu da asteburu honetan.

Bihar, larunbatean, Elezkano II.a eta Rezusta Victorren eta Albisuren kontra ariko dira Labriten (17:45ean, ETB1). Eta igandean, Altuna III.ak eta Mar-

tijak Irribarria eta Zabaleta izango dituzte aurkari Eibarko Astelenan (17:00, ETB1). Beraz, bueltan da ikuskizuna. Atzo larunbateko pilota aukeraketa egin zuten Elezkano II.a-Rezusta eta Victor-Albisuk Labriten, eta gaur, ostiralean, 11:30ean pilotak aukeratzeko hitzordua dute Altuna III.a-Martijak eta Irribarria-Zabaletak, Astelenan.

Ikusmina handia da, txapelketako azken txanpan gaudelako eta onenek egin dutelako aurrera. Txapelketa bukaerara nola iritsi diren, hori da gakoe-



Zabaletaren eta Martijaren lehia gogorra espero da atzeko koadroetan. UTZITAKOA

tako bat, baina hasiera batean ez dirudi pilotariak arazorik dutenik. Lau bikoak sasoi batean daude eta partida lehiatu eta gogorrek aurreikusten dira, txapela baitago jokoan. Lehendabiziko jardunaldian kontra

aritzea tokatuko zaie Sakanako bi pilotariei, Jose Javier Zabaletari eta Julen Martijari. Bi atzelariak bikain ezagutzen dute elkar eta katedrak atzeko koadroetan euren arteko lehia estua espero du.

SASKIBALOIA CBASKek 8. postuan despeditu du lehen fasea

Saskibaloiko Autonomia Arteko 2. mailan 19. jardunaldia jokatu zen aurreko asteburuan, ligako lehen faseko azken jardunaldia.

Altsasuko CBASK saskibaloitaldeak Valle de Egües hartu zuen larunbatean Zelandin eta esan beharra dago aspaldiko partez Altsasuko taldea izan zela jaun eta jabe. Azkenean, 61 eta 46 irabazi zuten altsasuarrek nagusitasun handiz eta puntu oso garrantzitsua lortu zuten.

Autonomia Arteko 2. mailako lehen fasea Cenicero La Alcohlera taldeak irabazi du (31 puntu) eta CBASK taldea zortzigarrena sailkatu da (23 puntu). Aurki txapelketako bigarren faseari ekingo zaio.



Lakuntzan aurkeztuko dute denboraldia.

TXIRRINDULARITZA Aralar klubak etzi egingo du 2019ko aurkezpena

Aralar Txirrindularitza Taldeak 2019 denboraldiko aurkezpena igandean egingen du, jaioterrian, Lakuntzan. Orain arte Intersport Irabiak babesten zuen talde sakandarra, baina hemendik aurrera Lakuntzako Sakana Group kooperatiba izango da taldearen babesle berria eta izen horrekin lehiatuko dira Aralar klubeko txirrindulariak. Horrekin batera, maillot berria estreinatuko du Aralar klubak eta guztiaren aurkezpena igandean egingen dute. Lehenik eta behin babeslearen egoitzan, Sakana Groupen egingo dituzte talde argazkiak, goizeko 11:00etan, eta 12:00etan Lakuntzako zinean bilduko dira guztiak, bertan denboraldiaren aurkezpena egiteko.



Aralar klubeko Sakana Group taldeko Aitor Alberdi azkarrena izan zen Villatuertako sprintean. MARTIN EARLY

Denboraldiko lehen proba Aitor Alberdirendako

TXIRRINDULARITZA Aralar klubeko Sakana Group taldeko arbizuarra juniorren Villatuertako XLI. San Veremundo Zirkuitua irabazi zuen, esprintean. Bere taldekide Igor Arrieta 5.a izan zen eta Quesos Albenizko Iker Mintegi 9.a, denbora berean

Junior mailako txirrindulariek denboraldiko lehen proba jokatu zuten igandean Villatuertan, 74 km-ko XLI. San Veremundo Zirkuitua. Mustutze eguna zen Aralar Txirrindularitza klubarendako. Babesle berria du Lakuntzako taldeak, Sakana Group kooperatiba, eta izen horrekin eta maillot berriarekin lehiatuko da aurten. Burunda klubak

Quesos Albeniz babeslearekin jarraituko du lehian eta burundarrak ere denboraldia hasteko gogotsu zeuden.

102 txirrindularik osatu zuten proba eta 9 txirrindulariz osatutako tropela iritsi zen elkarrekin helmugara. Esprint estuan, Sakana Group-Aralar taldeko Aitor Alberdi izan zen lehena (1:38:46), Lizarte taldeko

Mikel Retegiren aurretik. Bere taldekide Igor Arrieta bosgarrena sartu zen, denbora berean, eta Quesos Albeniz taldeko Iker Mintegi bederatzigarrena, denbora berean. Aipatu hiru txirrindulari hauek kadete mailatik junior mailara egin dute salto aurten, juniorren mailako euren lehen urtea da, eta sekulako maila eman zuten. Lehen

urteko sailkapenean Alberdi izan zen lehena, Arrieta bigarrena eta Mintegi laugarrena. Aurreko urtean kadete mailan sekulako maila eman zuten eta badirudi, aurten, junior mailan ere goian egongo direla gure txirrindulariak.

Bestalde, El Caserio Valsay taldetik Lizarte taldera egin du salto aurten Jon Gilek. Lakuntzarra 10.a iritsi zen helmugara, 13 segundora, Unai Aznar (Quesos Albeniz) 36.a, 50 segundora, Diego Gonzalo (Quesos Albeniz) 75.a, 2:30era, eta Mikel Lizasoain (Sakana Group) 80.a, 2:30era.

Afizionatuak: Rural Kutxako Urbano hirugarrena Ereñon

Igandean hasi zen afizionatuen mailako 23 urtez azpiko Lehendakari Txapelketa, XVI. Ereñoko Udala Sariarekin. Baqué taldeko Jon Agirre iritsi zen bakarrak helmugara (2:43:11) Lizarte taldeko Martin Bouzasi 6 segundo aterata. Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Carmelo Urbano hirugarrena iritsi zen, 33 segundora eta bere taldekide Oier Lazkano laugarrena, 34 segundora. Goierriko-Laboral Kutxa taldeko Ailetz Lasa zior-diarra 32.a sailkatu zen.

Bihar Lehendakari Txapelketa lasterketa jokatu da Urretxun, 15:30ean, Goierriko Itzulia (119 km) eta igandean Emakumezkoen Euskaldun Torneoeko proba antolatu dute Zal-dibarren, 11:45ean.

Finalerdietan erori ziren

SASKIBALOIA Asteburuan Erreginaren Kopa jokatu zen Gasteizen eta bertan lehiatu zen Naiara Diez saskibaloj jokalaria altsasuarraren Gernika Lointek. Final laurdenetan 83 eta 70 irabazi zion Gernikak IDK Gipuzkoari, baina finalerdietan Perfumerias Avenidak 74 eta 46 hartu zuen mendean Gernika. Hain zuzen ere, Avenidak irabazi zuen Kopa.



LOINTEK GERINIK

Lagun Arteak eta Altsasuk igoera faseari ekingo diote

FUTBOLA Universidad de Navarraren kontra ariko da Lagun Arteak eta Ardoiren kontra Altsasu

Lakuntzako Lagun Arteak eta Altsasu preferente mailara igozteko erregionaleko igoera faseko A multzoan daude. Guztira 8 talde daude multzo horretan, bi sakandarrez gain Urrozterra, Iruntxiki, Ardoi, Universidad de Navarra, Lagunak B eta Amaia. Asteburuan jokatu da lehen jardunaldia. Larunbatean Altsasuk Zizurko Ardoi B taldea hartuko du Dantzalekun, 16:00etan. Aldiz, Lagun Arteak igandean jokatu du Universidad de Navarra taldearen kontra, Iruñean, 12:00etan.

Jubeniletan derbia

Euren talde nagusiak bezala, Nafarroako Futbol Federazioko Jubenilen 2. mailan Lagun Arteak eta Altsasu igoera faseko A multzorako sailkatu dira. Lagun Arteak eta Altsasuk elkarren kontra jokatuz ekingo diote igoera faseari, larunbatean, 11:30ean, Lakuntzako Itxesaldan.

EMAKUM. ERREGIONALA

23. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Universidad de Navarra - Altsasu **1-2**

20. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Burlades - Altsasu **6-1**

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Osasuna Fundazioa **61**
12 Altsasu **22**

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

16:00 Altsasu - Kirol Sport (Dantzaleku)

Altsasuren garaipena

Emakumezkoen erregional mailako Altsasuk garaipen garrantzitsua lortu zuen asteburuan Iruñean, Universidad de Navarrari 1 eta 2 irabazi baitzuen partida oso lehiatua. Garaipenak airea eman die altsasuarrei. Igandean etxean jokatu dute altsasuarrek, Kirol Sport taldearen kontra, Dantzalekun 16:00etan hasiko den partidari.



Osasuna Magna Xotako jokalariek zaleen babesa bihotzez eskertu zuten. TOÑO DE LA PARRA

Osasuna Magna Kopako finalerdietan erori zen

ARETO FUTBOLA Final laurdenetan Peñiscolari penaltietan irabazi eta gero, Irurtzungo taldeak ezin izan zuen Barça Lassa mendean hartu. Hala ere, zaleek bihotzez eskertu zuten irurtzundarrek egindako lana. Ligan, talde berdeak Zaragoza hartuko du gaur

Ostegunetik igandera bitartean Espainiako areto futboleko Kopa jokatu zen Valentzian. Osasuna Magna Xotak Koparen bere 14. parte-harteari ostiralean ekin zion, gogotsu. Final laurdenetan Peñiscola Rehabmedic taldea izan zuen arerio talde nafarrak. Partida oso berdindua izan zen eta bana berdindu zuten bi taldeek. Hortaz, penaltiek erabaki zuten. Peñiscolak Osasuna Magnako Asier atezainari egindako lehen bi jaurtiketak ate barrura sartu ziren eta Rafa Usinek, Dani Saldisek eta Martelek Peñiscolaren atea zulatu zuten. Orduan atezainez aldatzea erabaki zuen Imanol Arregik. Edu jarri zen atezain lanetan eta ez zuen huts egin, Peñiscolaren hirugarren jaurtiketa gelditu baitzuen. Horrela, finalerdietarako pasea lortu zuen Osasuna Magnak.

Finalerdietan Barça Lassa finagoa izan zen

Osasuna Magna Xota eta Barça Lassaren arteko finalerdia in-

izantzen, Osasuna Magna Xotako ikusleek etengabe animatu zutelako taldea. Partida bukaeran txaloz hartu zituzten lur jota zeuden Xotako jokariak. Imanol Arregi entrenatzaileak adierazi zuenez "pena izan da. Taldeak dena eman du eta partida bikaina egin dugu, baina kontrako atean ez baduzu asmatzen, ez duzu irabazten". Kopako finalean Barçak 1 eta 2 irabazi zion El Pozo Murciari.

Eskerrik beroenak zaleei

"Oso konplikatu zela bagenekien, baina ez gara guztiz benetako Xota izan. Askok hobeto joka dezakegu, baina Barcelonak oso ongi jokatu du, bikain defendatu du eta ezin izan dugu golik sartu. Punteria falta izan dugu. Pena handia da honaino etorri diren zaleengatik bereziki. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu gure zaleei. Poztasunen bat eman behar diegu, eta azkar izango da" esan zuen partida bukaeran Asier atezain irurtzundarrek. Eta arrazoia

300 ZALE INGURUK TALDE IRURTZUNDARRA ANIMATU ZUTEN ETENGABE

izan zuen, Osasuna Magna Xotako ikusleek etengabe animatu zutelako taldea. Partida bukaeran txaloz hartu zituzten lur jota zeuden Xotako jokariak. Imanol Arregi entrenatzaileak adierazi zuenez "pena izan da. Taldeak dena eman du eta partida bikaina egin dugu, baina kontrako atean ez baduzu asmatzen, ez duzu irabazten". Kopako finalean Barçak 1 eta 2 irabazi zion El Pozo Murciari. Minikopan ere, haurren mailako Xotak Peñiscolaren kontra irabazi zuen, baina finalerdietan Bartzelonaren kontra galdu zuen.

Gaur Zaragozaren kontra

Kopa alde batera utzi eta ligan murgilduta daude Osasuna Magna Xotako jokariak. Izan ere, lehen mailako ligako 24. jardunaldia jokatu da. Talde berdeak Futbol Emotion Zaragoza izango du aurkari gaur, ostiralean, 20:30ean, Anaitasuna pabilioian. Osasuna Magnak ligako hirugarren postuari eutsi nahi dio.

FUTBOLA IMQ Kopa: Etxarri Aranatz final laurdenetara

Etxarri Aranatz IMQ Kopako final laurdenetarako sailkatu da, final zortzirenetan Aoz bidean utzi eta gero. Partida oso lehiatua, Xabatek Etxarri aurreratu zuen 45. minutuan, eta etxarriarrak gol bateko errentarekin joan ziren atsedenaldira.

Bigarren zatia hasi eta berehala, 48. minutuan, Luisek egindako erdiraketa aprobetxatu zuen Gentzak Etxarriren aldeko bigarren gola sartzeko. Gutxika Etxarriren atera gerturatzen hasi ziren agoizkoak eta bina berdintzea lortu zuten. 81. minutuan Xabatek Etxarriren hirugarren gola sartu zuen, baina partida bukatzeaz zegoela, deskontuan, 94. minutuan, hiruna berdintzea lortu zuen Aozek.

Hortaz, penaltiek erabaki zuten IMQ Kopako final laurdenetara nor sailkatuko zen. Etxarriarrak finago ibili ziren penalti jaurtiketetan eta, 5 eta 3 irabazita, final laurdenetarako sailkatzea lortu zuten.

Asteburuan preferente mailako liga itzuliko da. Etxarri Aranatzek Lezkairu hartuko du San Donato zelaian. Sailkapenean 13.a dago Etxarri (25 puntu), jaitsiera postuetatik puntu eskas batera, eta sailkapenean azkena, 16.a da Lezkairu (19 puntu). Beraz, arerio zuzenen arteko partida izanen da.

SAKANAKO TOPAKETAK

PARTIDUAK

IGANDEAN BENJAMINEN 12. JARDUNA

ETXARRI ARANATZEN

10:00 Etxarri Aranatz 1 - Altsasu C

10:50 Etxarri Aranatz A - Altsasu B

11:40 Urdiain - Altsasu A

12:30 Sutegi A - Aralar Mendi A

13:20 Aralar Mendi 1 - Sutegi

IGANDEAN KIMUEN 13. JARDUNALDIA

ALTSASUN

11:00 Etxarri Aranatz 1 - Tipi Tapa

12:00 Etxarri Aranatz A - Urdiain

12:00 Lagun Arteak 08 - Lagun Arteak 07

Sakanako Futbol Topaketak:

benjaminak Etxarri eta kimuak Altsasun

Igandean Sakanako Futbol Topaketetan kimuen mailako 13. jardunaldiko partidak jokatu dira Dantzalekun. Bestalde, benjaminen 7. jardunaldia jokoan dute Etxarri Aranatzek.

Igandean Iratxo mendi taldekoekin Ezkabara

MENDIA Bi mendi ibilbide aukera daude, Ezkaba-Saigots (25 km) edo Ezkaba-Olabe (13 km)

Irurtzungo Iratxo mendi taldeak memoria ariketa bat egin nahi izan du egunotan. Horrela, ostegunean Fermin Ezkietak "Ez-kabako ihesa-La Fuga de Ezkaba" liburua aurkeztu egin zuen Iratxo elkartean eta gerrate zibilaz, 1936ko kolpeaz eta ondoko errepresio gogorraz aritu ziren bildutakoak. Eta Ezkaban gertatutakoak informazio fidela jaso eta gero, igande honetan, martxoaren 10ean, Ezkabara mendi irteera antolatu dute Iratxokoek.

Hitzordua igandean 7:00etan jarri dute, Iratxon. Bi ibilbide egin daitezke: luzea, Ezkaba eta Saigots artekoa (25 km), edo motza, Ezkaba-Olabe artekoa (13 km). Izena ematea zabalik dago Iratxo elkartean edo iratxomendi@gmail.com e-postan. Informazio gehiagorako 620 190 277 telefonora hots egin daiteke.

Bestalde, apirilaren 14an, igandearekin beste ibilbide bat antolatu dute Iratxokoek, goizeko 7:00etan hitzordua jarrita. Bi aukera egongo dira: Saigots-Urepel (26 km) edo Saigots-Sorogain (17 km).

Orisolera, Sakanako Mendizaleekin

Sakanako Mendizaleak taldeak prest dauka martxoko irteera. Hurrengo asteko igandean, martxoaren 17an, Orisol izango dute helmuga. Orisol (1.128 m) Arabako Arangio edo Etxaguen haitzetan dago, eta bertan ibilbide ederra egingo dute Sakanako mendizaleek.

Autobusa martxoaren 17an goizeko 7:00etan aterako da Irurtzundik, eta ondoren Sakanako gainontzeko herrietatik pasako da, txangoan izena eman duten mendizaleak hartzeko. Izena ematea zabalik dago, herri baikoitzeko arduradunari esanda edo, bestela, 639 117 631 telefonora hots egin.



Beñat Katarain eta Asier Larruzea Euskal selekzioko kideak batera iritsi ziren helmugara. EUSKAL MENDI LASTERKARIEN SELEKZIOA

Katarain ongi Espainiako Kopako lehen proban

MENDI LASTERKETAK Espainiako Koparako baliagarria den 28 km-ko MABO mendi maratoian aritu zen Beñat Katarain lakuntzarra aurreko asteburuan Valentzian, eta 16.a sailkatu zen, Euskal selekzioko lehena

Asteburuan Espainiako Mendi Lasterketen Koparako baliagarria den MABO Bestile (Marató Muntanya de Borriol) proba ezaguna jokatu zen Valentzian, aldi berean, Mendi Lasterketen Espainiako Kluben Arteko Txapelketa zena. Hori dela eta, puntako mendi korrikalariak lehiatu ziren bertan. Beñat Katarain lakuntzarra Euskal Herriko

Mendi Lasterkariaren Selekzioarekin aritu zen.

MABO proba lau distantziatan jokatu zen: 28 km, 20 km (juniorrak), 14 km (kadeteak) eta Petit MABO, txikienendako. Modalitate guztiak kontuan hartuz, 1.200 mendi korrikalari baino gehiago lehiatu ziren.

28 kilometroko proba Zaid Ait Malekek irabazi zuen (2:30:59),

lasterketa bikaina eta gero. Beñat Katarain lakuntzarra fin ibili zen eta 16.a sailkatu zen (2:39:51), Euskal Selektioko lehendabiziko korrikalaria, bere taldekide Asier Larruzearekin batera helmugara iritsi eta gero, azken hau 17. postuan (2:39:53). Emakumezkoetan Gisela Carrion gailendu zen (3:04:41), sailkapenean orokorrean 111.a.

Galar Trail

Igandean 450 korrikalari inguruk parte hartu zuten Galar Trail mendi lasterketan (18,5 km, 1.100 m desnibel +). Ilunberriko Xabier Zarranzek (1:29:47) eta Iruñeko Enara Oronozek (2:15:03) irabazi zuten proba. Sakandarren artean Carlos Mañeru (1:53:25) eta Erkuden San Martin (2:15:03) izan ziren azkarrenak.

Gizonezkoak

1. Xabier Zarranz	1:29:47
56. Carlos Mañeru	1:53:25
122. Arkaitz Munarriz	2:02:56
138. Ibai Arrese	2:04:12
169. Ruben Cantero	2:08:48
173. Edu Casanovas	2:09:30
215. Mikel S. Martin	2:15:03
380. Hodei Lakuntza	2:49:46

Emakumezkoak

43. Enara Oronoz	1:49:55
216. Erkuden S. Martin	2:15:03
231. Joana Lopez	2:16:31

Bestalde, asteburuan Beasaingo Herri Lasterketa jokatu zen (14 km), Hossain Kaanachek (46:46) irabazitakoa. Joxeja Maiza 32.a sailkatu zen (54:44). Beasaingo Herri Lasterketa Mistoan (7 km) Juan Luis Maiza eta Maite Zabaleta etxarriarrek osatutako bikoa 20.a iritsi zen helmugara (36:46).

Endika Irigoien Osasunan

FUTBOLA Osasuna eta Nàsticen arteko partidari min hartuta zegoen Carlos Clerc ordezkatzeraz Endika Irigoien (1997, Urdiain) atera zuen Jagoba Arrasatek. "Debutatu izana emozio handikoa izan da. Denboraldi osoa daramat beraiekin entrenatzen, eta egunero bezala aritzeko eta disfrutatzen esan dit Jagobak" aitortu zuen Irigoienek, zaleen harrera beroa eskertuz.





Eneko Lazkoz Atarrabiako finalurrekoan. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Eneko Lazkozek finalerako txartela lortu du

Lazkozek irabazi zuen Atarrabian, eta Karasatorre laugarrena izan zen. Bihar Etxarrin izanen da saioa

ETXARRI ARANATZ

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehenengo finalurrekoa Atarrabiako kultur etxean jokatu zen aurreko igandean, martxoaren 2an, eta Eneko Lazkozek irabazi zuen saioa 399 punturekin. Hortaz, etxarriarrak martxoaren 23an jokatu den finalerako txartela lortu zuen. Saats Karasatorre laugarren sailkatu zen 335 puntuekin eta gelditzen diren bi finalurrekoak jokatzea itxoin beharko du finalera sailkatzen den jakiteko. Bihar izanen da bigarren finalurrekoa Etxarri Aranazko kultur etxean, 17:30ean. Azkena Lesakan jokatu da. Finala martxoaren 23an izanen da, Anaitasuna kiroldegian, etaguztira, zortzi bertsolari ariko dira finalean, hiru finalurrekoetako irabazleak eta sailkatutako hurrengo bostak.

Bi bertsolariak pozik

Atarrabian egindako lanarekin "gustura" gelditu dira bi bertsolari etxarriarrak Belexe irradian (FM 107,3 eta guaxe.eus) adierazi zuten bezala. Lazkozen kasuan, saioa irabazi ondoren eta finalerako zuzenean sailkatu ondoren, egindako lanarekin eta emaitzarekin "oso gustura" dagoela aitortu du. Karasatorrek, itxoin beharko du jakin arte finalerako sailkatuko den edo ez, baina txapelketan "iritsi den tokira" iristeagatik "pozik" dagoela aitortu du etxarriarrak. "Txapelketa bertso-eskola serio hartzeko aitzakia izan da".

Lehenengo aldia izan zen Karasatorre eta Lazkoz elkarrekin saio batean aritzen zirela, eta "ilusioarekin" hartu zuten. Elkarrekin kantatzea ez zitzaien egokitu. "Nik Saats ongi ikusi nuen, gustura gelditu zela esan zuen, eta nik aurrerago geldituko zela uste nuen". Karasatorrek, aldiz, puntuazio gehiago espero zuen: "norbaitek esan zidan Tuteran baino saio okerragoa egin nuela, baina nik ez neukan sentazio hori".

Karasatorrek ere Lazkoz "ongi" ikusi zuen. "Hasieratik ari zen bere mailan". Izan ere, Lazkoz final-laurdenetan bigarren sailkatu zen "hotz" harrapatu zuelako txapelketak, aldiz, finalurrekoan "sartuago" zegoela eta egun "on" bat izan zuela azaldu du Lazkozek.

Azken finalurrekoak

Bihar, larunbata, Etxarri Aranazko kultur etxean jokatu da bigarren finalurrekoa. Julio Soto, Xabier Terreros, Julen Zelaieta, Diego Riaño, Iker Gorosterrazu eta Iban Garro bertsolariak ariko dira. Alaitz Rekondo izanen da gai-jartzailea. Sarrerak dagoeneko salgai daude bertsosarrerak.eus webgunean eta Xapatero tabernan. Egunean bertan kultur etxearen leihatilan salduko dira ere. Igandean, martxoaren 10ean, hirugarren eta azken finalurrekoa jokatu da Lesakan. Joseba Beltza, Nerea Bruño, Mikel Beaumont eta Jon Abril dira finalurrekoetako faseko epaileak.

Dantzaren oihua

Irantzu Gonzalez dantza eskolako bi taldek Euskadiko dantza modernoaren eta urbanoaren Euskadiko lehiaketa nazionalen parte hartu zuten. Youth edo gazte mailan parte hartu zuten Oihu Loreak eta Arima taldeek hamalau talderekin batera. Ez zuten saririk lortu, baina Bilbao arenan dantza esperientzia "ikaragarria" izan zela adierazi dute dantzariak.



UTZITAKOA

Ilusioa, urduritasuna, poza eta kantu asko bihar Lakuntzan

Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantari Jaialdia izanen da bihar Lakuntzako kultur etxean, 18:00etan

LAKUNTZA

Euskaraz kantatzeko zaletasuna sustatzea du helburu Haur eta Gaztetxo Jaialdiak. 6 eta 16 urte bitarteko haurrek eta gazteek parte hartuko dute banaka, binaka edo taldeka prestatutako

abestiak kantatuz. Bihar lehenengo emanaldia izanen da Lakuntzan, 18:00etan, kultur etxean. Nafarroa osoan euskal kantak hedatzea da jaialdiaren helburuetako bat, hortaz, datorren astean Tuteran izanen da jaial-

dia. Martxoaren 23an Antsoainen izanen da, eta Jaialdi Nagusia, aldiz, apirilaren 13an izanen da, Barañaingo auditorioan.

Haur eta Gazte Kantarien Jaialdiak hainbat helburu ditu. Lehenengoa euskaraz kantatzeko zaletasuna bultzatzea da. Gainera, euskararen kantuen arloan dagoen erreperitorio aberatsa haurrei iristea nahi da ere. Hortaz, euskal kantua heziketarako tresna moduan erabiltzea da jaialdiaren xedeetako bat.



BAZTERRETIK

RICARDO ARETA
URRESTARATZU

Drummers

"Emakumeek ez dute danborra jotzen..." Hauxe izan zen 60. hamarkadan Karen Carpenter-ek jaso zuen erantzuna ikastetxeko orkestran musika tresna aldatu nahi zuela eta bateria jotzen hasi nahi zuela esan zuzenean. Azkenean, lortu zuen. Danborren aurrean eseri zen eta ez da sekula altxatu. Handik gutxira The Carpenters osatu zuen Richard bere anaiarekin. 1969tik 1979ra lehen salmenta postuetan izan ziren. Karenek bateria jotzen duen abilezia historiako bateria-jole handienek goraiatua izan da, Karen bera ere erreferentziatzeko bateria-joleztat ezagutzen delarik.

80. hamarkadak talde eta estilo leherketa utzi zigun arren, 90. hamarkadan, oraindik ere, harrigarria suertatzen zitzaigun Lenny

Kravitzten atzean, musika taldearen ibilbidea posiblea eginez, emakume bat ikustea. Bera Cindy Blackman da eta ez da bitxia, emakumeak bateria-jole izatea ohikoena ez delako soilik, baita bere jotzeko moduaren bitartez igortzen duen indarrarengatik ere. Argi uzten du nork agintzen duen. Rockera itzela izateaz gain, bere benetako estiloa Jazza-a da. Bere izenpean sinatu eta lideratzen duen hainbat disko ditu estilo honetan.

Beste talde handi bati erritmoa jartzen Sheila E. da. Hasieran baxua eta gitarra jo izan zituen arren, bateria eta perkusioa dira bere ingurune naturala. Urtetan, NEW POWER GENERATION-eko zuzendaria izan da, Prince laguntzen zuen musika



taldearena. Ibilbide luzea du musikaren munduan eta hainbat artistarekin kolaborazioak egin izan ditu: Gloria Estefan, Lionel Richie, Ringo Star, Beyoncé...

Egia esateko, ez da batere erraza emakumeak bateria-joleak aurkitzea. Industria musikaren barruan %80 gizonezkoa da eta %20 emakumezkoa. Datu honek hainbeste lan hartzen ditu, teknikariak, ordezkariak, backliners, eta abar. Baina... emakumezkoentzako eta gizonezkoentzako musika-tresnak daude edo guk sortzen dugu bereizketa hau? Inguruko musika eskolek prestatzen dituzten jaialdietan neskak pianoan eta mutilak baterian eserita ikusten ohi ditut. Baina haurrak nire lokalera etortzen direnean, guztiek, neskek zein mutilek, bateria jotzea aukeratzeko dute, beste musika tresnak baztertuz. Argi dago lagunak aukeraketak pisua izaten duela, baina ez gara aukeraketa hau etxetik ere behartzen ari?



Eva Azpilikueta 'Etxe txikiena' antzezlanean. YARLEKU TEATRO

"Txalo bat benetakoa denean asko nabaritzen da"

EVA AZPILIKUETA MARTINEZ AKTOREA

Feten jaialdian emakumezko aktore onenaren saria irabazi zuen altsasuarrak 'Etxe txikiena' antzezlanean egindako lanagatik. Esfortzuari saria bezala hartu du aktoreak

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Eva Azpilikueta aktore altsasuarraren bizitza antzerkian dago. Hamaika pertsonai antzeztu ditu, baina agian garrantzitsuenetarikoa *Etxe txikiena* antzezlanean interpretatzen duen Bettinaren papera izan da. Xi-xongo Feten jaialdian aurkeztu zuten lana, eta festibalean egindako lanagatik emakumezko aktore onenaren saria jaso zuen. Pertsonai honek "barrutik gehien mugitu" duenatariko bat dela esan du altsasuarrak.

Nolako esperientzia izan da Feten-en parte hartzea?

Esperientzia pixka bat kaotikoa izan da. Mugimendu handiko feria bat da; beraz, ikuskizun asko batera egiten dira eta jendea hemendik hona ibiltzen da. Shock bat izan zen ikuskizun bat ikustera sartu ginelako, eta amaitu baino lehen jendea altxatzen hasi zelako. Azkenean haiek ahalik eta ikuskizun gehien ikusi nahi dituzte. Ostiralean kontzentratu ginen eta egin behar genuena egin genuen. Bi pase

egin genituen. Presio handia izan genuen. Baina oso pozik gelditu ginen txalo beroak izan zirelako.

Eta, gero, saria eman zizuten. Nolako izan zen momentu hura?

Ikaragarria izan zen. Ez nuen inolaz ere espero. Ez ginen inolako intentzioarekin joaten. Nahi genuen ikuskizuna gustukoa izatea eta gure istorioa mila aldiz egin ahal izatea. Sariak banatzen hasi ziren, nik ez nekien zenbat kategoriak zeuden ere, eta emakumezko aktore onena-

rena esan zutenean hankaz gora gelditu nintzen. Hasieran sustoa hartu nuen, eta gero oso hunkituta hartu nuen. Talde osoagatik poztu nintzen, baina ez dut meriturik kenduko, ongi etorria da. Gainera, antzeztu ondoren istoriotik emozionalki oso nahastuta geratzen naiz eta bidai emozionala oso handia egiten dugulako.

Antzezlana amaituta ukituta gelditzen zarela esan duzu. Zertaz doa 'Etxe txikiena'?

Errefuxiatuen gaiari buruz doa. Errefuxiatuen esparru batean gertatzen da, nahiz eta ikuskitunean behin ere ez den esaten. Baina ulertzen da. Oso istorio indartsua da. Bi neskato dira, leku horretan elkartzen direnak. Alderantzizko bidai bat egiten dute, eta adiskidetasun istorio oso polita da ere. Bidai emozionala, beraz, oso indartsua da.

Nola kontatu horrelako gai bat haurrei?

Nik gizarte integrazioa ikasi nuen. Beraz, niretako amets bat zen gizarte gaiak antzerkian uztartzea. Nire helburu nagusia da. Gainera, gure zuzendaria, Rosa Diaz, emakume handi bat da eta haurrei heriotzaz eta gerraz hitz egiten die gertutasunarekin eta modu zuzeneko batean. Askotan pentsatzen dugu haurrak ez direla gauzez konturatzen, baina askotan ez gara gai gauza asko azaltzera ausartzen. Oso gai delikatu da, baina oso modu politean tratatuta dago. Izan ere, komikotasuna ere dago istorioaren barruan drama handia txikiagotzeko. Gure helburua da haurrek istorioarekin enpatia sentitzea.

Txaloei buruz hitz egin duzu. Zer esanahia dute txaloek?

Aktoreek seigarren zentzumen bat dugu, agian jende asko bezala, baina asko nabaritzen dugu txalo bat benetakoa denean eta ez denean. Une honetan publikoa arnasten hasten gara, guk esaten dugun bezala. Ikuskizuna publikoaren aurrean jartzen duzun arte, ez dakizu nola funtzionatzen duten erritmoek, nola jasotzen duen publikoak istorioa, eta publikoarekin topatu garen arte

"ANTZERKI AKTOREAREN OGIBIDEA DUIN BIHURTU BEHAR DUGU"

ez genekien nola funtzionatuko zuen. Baina txaloan, ez dakit zergatik, baina nabaritzen da benetako txalo bat dela. Gainera, istorio honetan erabateko isiltasun bat dago eta, bat batean, txaloa. Ez dakit nola azaldu.

Nolakoa izan da aktore izateko ibilbidea?

Zorte handia izan dut. Nafarroako Antzerki Eskolan 2004tik 2007ra egon nintzen. Eta 2005ean konpainia batek, Yarleku, haiekin antzezteko deitu ninduten. Ordutik Yarlekuarekin nago, hau da, beraien proiektu guztietarako deitu didate. Eskolatik atera berri Eskolak berak nirekin kontaktatu zuen ikastetxeetarako Gayarren egiten den Cervantesen entremes bat egiteko. 2013an Tdiferenciarekin hasi nintzen. Bidean hamaika gauza egin ditut. Mundu hau oso zaila da.

Zergatik antzerki aktorea?

Kamerek panikoa ematen didate. Hori bai, zerbait egiteko prest egongo nintzateke. Antzerkia egiteko lotsagabe bat naizen moduan, nire burua bideoan ikustean barregarri geratzeko beldur naiz. Jende askori gertatzen zaio. Gainera, beste lengoai bat da, antzerkiarengatik oso ezberdina. Interpretazioak guztiz ezberdinak dira. Eta ez ditut ateak ixten, ikastea gustatuko litzaidakeelako, baina momentuz kamerek nahiko errespetua ematen didate.

Interpretatzea zaila da?

Edonork ezin du egin. Beste edozer gauza bezala honek trebakuntza behar du, formatu behar zara, jakin behar duzu ahotsa nola jarri, espazioa kontrolatzen jakin behar duzu, fisikoki prestatu behar zara, antzerkiaren mundua eta historia ezagutu behar duzu... Atzetik gauza asko daude, edozein ogibide bezala.

Zer suposatuko du sariak zure karrerari?

Sari hau esfortzu guztiari errekonozimendua izan da. Antzerkiaz profesionalki lan egiteko bide gogorra eta konplikatu da, eta, gainera, edozeini gustatzen zaio bere lanean esker ona jasotzea. Askok hunkitu ninduen badirudi elako erraza dela, baina ez delako batere erraza esatea nik antzerkiaz bizi nahi dudala. Eta gero esaten dizute: antzerkia, baina nola... Ogibide hau duin bihurtu behar dugu. Oso polita da, baina ez da hain erraza, ez da konstantea eta abar.



Sakanan pertes gaixotasuna duten bi haurren familiak.

"Pertes gaixotasunean hezurra higatzen da"

Oihane 10 urte bete berriak ditu eta 7 urterekin pertes gaitza diagnostikatu zioten. Oihani duela bi urte diagnostikatu zioten gaitza, lau urte zituenean. Estitxu eta Irantz bi haurren amak dira eta martxoaren 17an egingo den Zumbatoia prestatzen ari dira

I. Carreño-E. Ruiz IRUTZUN-LAKUNTZA

1 Estitxu Lakuntzako eta Irantz Irurtungoa. Zerk elkartu zaituzte?

Irantz. Estitxu Irurtzunen bizi izan zen eta dantza taldean aritu ginen, baina Lakuntzara joan zen. Ondoren, gero gure seme-alaben gaixotasunak elkartu gaitu.

2 Zer da pertes gaixotasuna?

Estitxu. Odol arazo bat da. Hezurrarekin lotuta dago, baina jatorria odolarena da. Momentu batean odol jarria eten egiten da eta izterrezurraren burura ez da iristen. Horren ondorioz bertako zelulak hiltzen dira, nekrosi bat gertatzen da, eta, beraz, higadura bat. Ez dakite ongi zerk sortzen duen.

3 Nola konturatu zineten?

E. Oihane maki hasi zen, errenka. Baina hasieran ez zuen minik. Poliki hasi zen belaunean mina identifikatzen. Pediatrak ez zekien belaunaren edo aldakaren arazoa zen, eta aste batzuk pasa zirenean larrialdietara joan ginen, plaka egin zioten, eta aldakakoa ikusi zuten. Dena den, plakan ez da beti ikusten.

4 Denbora pasa daiteke, beraz.

E. Batzuetan, bai. Pertesa haurren gaixotasun bat da. Eta haurrek askotan ez dakite mina hori non duten. Orduan, ez da erraza. Beste batzuetan asintomatikoa da eta pertesa jakin gabe pasa dezakezu. Gero ondorioak ikusten dira.

5 Eta gero naturalki hezurra osatzen da.

I. Ez dago tratamendu bereziren bat. Ez dago botikarik. Lasaitasuna behar duzu, atsedena hartu, hezurrak ez du inpakturik izan behar, ezin dute korrikarik egin... Hasieratik igerilekura joatea gomendatzen dute.

6 Eta nola azaltzen zaio hori haur bati?

E. Kanpotik ikusten dena da. Gorpildun aulkian eta makuluekin ibiltzeko esaten diete. Horrek fisikoki gelditzen ditu umeak. Beraz, haurrei makuluak eta gorpildun aulkia ematen zaienetik badakite zaindu behar dutela. Oso arduratsuak izan dira eta oso barneratuta izan dute. Une honetan dagoeneko ez dute behar.

7 Zorionez.

I. Bai. Makuluak enteratu ginen egunean bertan erosi genizkion eta guretzat momentu gogorra izan zen. Baina berarentzat ez. Klaseko guztiek nahi zituzten makuluak nobedadea zelako. Baina lau urterekin azaltzea zaila zen. Sendatzeko zer egin behar zuen, eta berak mina zuenez, ulertu zuen.

E. Oihane berak eskatu zidan aulkia. Eta aulkia esker parte hartu du Sakanako ekimen guztietan.

8 Beraz, dena aurrera doa eta ongi.

I. Oihani duela bi aste kendu zioten. Progresiboa izan da eta, orain, korrika egiten utzi diote, pilotan apuntatzen...

E. Oihaneren prozesua antzekoa izan da, baina luzeagoa beranduago diagnostikatu ziotelako. Bi ebakuntza egin dizkiote. Hilarbete bat etzan egon zen. Oraindik muga batzuk ditu, baina badoa.

9 Bitarte horretan elkarte batean egon zarete: Asfape. Zein da helburua?

E. Asfape berehala ezagutu genuen, pronostikoa jaso bezain pronto. Informazioa lortzeko iritsi ginen elkartera. Gainera, beste familia batzuekin harremanetan jarri ginen. Nahiz eta haurrek pairatzen duten, familia guztiari eragiten dio.

I. Niretako garrantzitsuena beste familia batzuekin harremanetan egotea da. Jardunaldiak eta hitzaldiak antolatzen dira.

10 Zer egiten duzue jardunaldi horietan?

I. Alde batetik, haurrak monitoreekin gelditzen dira eta jolas egokituak egiten dituzte. Horrela harremana sustatzen dugu. Gero gurasoak beste aldetik elkartzen gara esperientziak partekatzeko eta beste batzuetan ere hitzaldiak egoten dira.

11 Asfaperen aldeko zumbatoia izanen da Arbizun.

I. Oihane igerilekura joaten zen eta gaixotasunaz interesatu ziren. Pertes duten haurren aldeko lasterketa ere egingo da. Haiengatik korrika egingo dute beste pertsona batzuek.

